

GAIA: HEZKUNTZA EZAGUTZEN • ESPERIENTZIA: KARTOIZKO BI KUTXARE-
KIN HASI ZEN DENA • EKARPENA: KOSMODISEA • GALDEIDAZUE: ARANTZA
ARRIEN • SAN TELMO MUSEOA • ATZEKO ATETIK: AINARA GURRUTXAGA

hh
hik hasi

163

4 EURO • 2011KO ABENDUA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



ELKARRIZKETA

Patricia Leon Agustí

Kolonbiako hezkuntza aditua



8 URTEK
AURRERA

IRIBARREA ZABALTZEKO IPUINAK

JUAN KRUZ IGERABIDE
JOKIN MITXELENA

Irribarrea zabaltzeko ipuinak ipuin-liburua, xarmaz eta magiaz beteriko hamar ipuinek osatzen dute. Hauek dituzue horietako batzuk: sudurra okertzen zuen aitonarena, haur aurreratuak baino joaten ez diren eskolarena, Lurraren ardatza aldatu zuen haur eskimalarena...



8 URTEK
AURRERA

ZABALEKO TXORIMALOA

JUAN LUIS ZABALA
MAITE GURRUTXAGA

Iker herri handi samar batean bizi da bere amarekin, eta eskola etxetik urrun samar dagoenez, amak eramaten du egunero kotxez, harik eta erabakitzen duen arte, Ikerrek eskolara oinez joan behar duela.

10 URTEK
AURRERA

NIRE AITA IKUSEZINA DA

JULEN GABIRIA
PATXI GALLEGRO

Elene neska azkar eta alaia da, anaia txiki bat jaio berri zaiona. Denak daude pozik eta apur bat urduri aldaketekin, baina Elenek badu kezka bat ere: aita ikusezina bihurtu da...



12 URTEK
AURRERA

MOTZERRA

XABIER MENDIGUREN
AITZIBER AKERRETA

Ttartaloren herri-ipuina, edo Polifemoren mito klasikoa, terrorezko film baten gisa kontatua: bi gazte, basoan galduta, etxe bakarti batera iristen dira, eta begi bakarreko gizon beldurgarri batek zabaltzen die atea...



**XAGUXAR BILDUMA ERABERRITUA,
INOIZ BAINO KOLORETSUAGO,
BETI BEZAIN DIBERTIGARRI**

elkar

www.elkarargialetxea.com

aurkibidea



8
gaia

HEZKUNTZA EZAGUTZEKO HAINBAT GAKO

Euskal Herriko zatiketa administratiboek erro sakonak dituzte hezkuntza esparruan. Hala, gaur gaurkoz, hiru hezkuntza antolamenduz hitz egiten jarraitu behar dugu. Hirurak, ordea, bi estatuk ezarritako legerien eta curriculumen pean.



15
elkarrizketa

PATRICIA LEON AGUSTÍ

Hezkuntzari eskaini dio bizitzaren zati handi bat, eta, gaur egun, nazioarteko erreferentea da. *Proyecto Cerko* ikertzaileekin garatu du bere lana, eta Ulermenerako Irakaskuntzaren egitasmoan Howard Gardner-en Adimen Askotarikoen Teorian ari da.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA EZAGUTZEKO HAINBAT GAKO

DATUAK ETA BILAKAERAK

16 elkarrizketa

PATRICIA LEON AGUSTÍ

24 esperientziak

Kartoizko bi kartoirekin hasi zen dena .

29 ekarpenak

Kosmodisea, abentura lantaldean.

30 galdeidazue

Eskoletako jantokietako kudeaketa zuzenak ba al du eraginik gure ikasleen elikaduran eta osasunean?

Arantza Arrien

33 berriak

40 nora joango gara?

San Telmo museoa.

42 Atzeko atetik

Ainara Gurrutxaga

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urroza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-11-23). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun gainerako
materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

abendua

Hezkuntzatik eskaintzeko duguna



Zabal daitezkeen aukera berrien aurrean hezkuntzan jorratuta ditugun hainbat proposamen berrartzeko unea da.

Euskal Herrian egun eskaintzen dugun hezkuntzari argazkia aterako bagenio, argazkia baino puzzle itxura handiagoa izango luke irudiak.

Alde batetik Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatuko lukete puzzlearen pieza bat. Espainiako legeriaren eta curriculumaren pean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zuzentzen ditu lurralde horietako hezkuntza jardunak.

Bigarren pieza Nafarroak osatuko luke, Espainiako Hezkuntza Sistemaren mende hori ere. Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Departamentua da bertako hezkuntza ardura-duna. Nafarroa, era berean, zatikatua azalduko da, eremu euskaldunean, mistoan eta eremu ez-euskaldunean.

Eta hirugarren pieza, Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak osatuko dute. Frantziako estatuaren legeriaren eta curriculumaren mende. Hezkuntza Akademiak kudeatzen du herrialde horietako hezkuntza departamendukide dituzten Pirinio Atlantiarreko gainera-ko lurraldeen antzera.

Ondorioz, euskaldun bakoitzak, bizi garen lurraldearen arabera, izango dugu eskola egutegia, eskola ibilbidea, curriculum, euskararen trataera, hizkuntza-ereduak, eleaniztasuna eta eskolari bete-betean dagozkion antzeko gaiak.

Krisiak astindu ditu gure eskolak. Era berean, krisi ekonomikoak argitara ekarri ditu azpian soma zitezkeen beste krisi batzuk.

Krisi une guztietan gertatzen den gisan, une honetan ere aukera berriak zabaldu daitezke. Zaharkituak eta estuak geratu diren eskemak eta ereduak berpentsatzeko abagune aproposa izan liteke. Hezkuntza administrazioetatik ezartzen diren hizkuntza politiken aurrean jendarteak agertzen duen nahia edota azken hauteskundeetako emaitza sindikalek erakusten dituzten joerak adibide batzuk besterik ez dira, jendarteak dituen jomugak eta administrazioek dituztenak ez doazela bide berean adierazten duten lehen zantzuak, akaso.

Une historikoak bizitzen ari gara, baita herri gisa ere. Hezkuntzan gabiltzanoi ere tokatzen zaigu abiatu den uholde horri gure ekarpena egitea. Ez dugu zerotik hasi behar, etxerako lan batzuk eginak ditugu. Hor daude, esaterako, hezkuntza arloko hainbat eta hainbat partaidek eta eragilek babestu zuten *Oinarrizko Hezkuntza Akordioa*, *Euskal Curriculum* edo *Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko* Euskararen Kontseiluak eginiko proposamena.

Haize berriak harrotu omen dira eta hezkuntzaren normalizazioak aldekoak izan ditzake. Hasitakoak berrartzeko tenorea da. Norbaitek esan bezala: *“Euskal Herria eraikitzeke ezinbesteko zutabe dugu hezkuntza. Ezinbestekoa dugu gure hizkuntza eta kultura ziurtatuz, herri garapen jasangarrian, parekidetasunean, justizia sozialean oinarritutako jendarteak eraikitzea bermatuko duen Hezkuntza Sistema Nazionala antolatuta eta martxan jartzea”*. Horra hezkuntzatik eskain dezakeguna!

kronika

Udan ipini zuen abian Eusko Jaurlaritzak Haur Etxeak izeneko egitasmoa. Datorren urtean Araban eta Gipuzkoan beste 18 Haur Etxe irekiko dituzte, guztira 23 Haur Etxe izateko. Ekimen honek, zaintzaile bakoitzak bere etxean gehienez sei urtera arteko lau haur zaintzean datza. Dagoeneko hiru Haur Etxe martxan daude Bilbon, eta beste bi Getxo (Bizkaia) eta inguruetan. Bost egitasmo horiek datorren urtean hasiko direnekin batera eredu hori aztertu eta ondorioak ateratzeko saioak direla adierazi du Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburuak. Izan ere, lanpostuak sortzea eta familia eta lana bateragarri egiteko zerbitzu gehiago eskaintzea dute helburu egitasmo horiek. Argibideak eskatu ditu, ordea, EAko legebiltzarkideak. Haurreskolak Partzuergoak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 7.300 leku baino gehiago eskani eta horietatik 2.300 baino gehiago bete gabe baitaude.



Mobilizazioak aurrera murrizketak direla-eta

Murrizketen itzalpean hasi zen ikasturteak murrizketak izaten jarraitzen du. Hala ere, hezkuntza komunitatea osatzen duten langileak, gurasoak eta ikasleak ez daude prest ezarri diren murrizketak besterik gabe onartzeko. Hala, urrian zehar egin ziren grebek, geldialdiek eta mobilizazioek jarraipena izan dute azaroan zehar.

Urriaren amaieran Nafarroan egin ziren greba eta mobilizazioek izan dute nolabaiteko oihartzuna eta Nafarroako gobernuak aldaketak iragarri zituen. Hala ere, eta sindikatuek “gobernuaren jarrera lasaitzen hasi dela” onartu duten arren, jarrera aldaketa horrek emaitzak izan ditzan jarraituko dute protestekin.

Gainera, Herrikoa eta Sortzen-Ikasketuaz guraso elkarten federazioek zein LAB, ELA, EILAS, CCOO eta CSIF sindikatuek Nafarroako Gobernuak

2012. urterako aurreikusitako aurrekontuak salatu dituzte 2011rako onartutako aurrekontuekin alderatuta %7ko murrizketa izango baitute hezkuntzarako aurrekontuek.

Hiru milioi gutxiago ordezkoentzat

Eusko Jaurlaritzako sailburuarentzat “ona, eta egungo egoera kontuan hartuta, esango nuke oso ona” da heldu den urterako aurkeztu den hezkuntzarako aurrekontua. Iazko aurrekontuko datuekin alderatuta, % 0,9 jaitsi arren, Zelaak nabarmendu zuen Jaurlaritzaren aurrekontua osotasunean hartuta hezkuntzak duen pisua %0,1 hazi dela. Hurrengoak aurtengoarekin dituen abantailekin batera, aurreratuko dute ordezkapenentarako langileen gastuan 3 milioi gutxiago emango dituztela: milioi bat gutxiago Lehen Hezkuntzan eta bi milioi gutxiago Bigarren Hezkuntzan.

Soldata jaitsierak ezetsita

Epaiegiak ELAk eta LABek Nafarroako Ikastolen Elkartearen kontra jarritako salaketa ontzat eman du. Ondorioz, langileen soldatetan egindako murrizketak ez dira legezkoak.

Epaitegiak emandako ebazpenaren arabera, langileek eskubidea dute murrizketaren aurretik jasotzen zuten soldata jasotzen jarraitzeko.

“Gure idealak ezin du izan unibertsaltasuna lortzea gure ezaugarri guztiak erantziz, baizik eta aldi berean ahalik eta unibertsalena eta ahalik eta partikularrena bihurtzea”.

Alain Touraine



“Herria askatuko duen eskola berrirako”

Lemapean ospatu dute aurten 2011ko Ikasle Eguna Villabonan. Aurreko urteetan bezala, aurten ere IA Ikasle Abertzaleak bildu ditu ikasle gazteak kolektibo gisa dituzten eskubideei eta hezkuntzan ere jasaten dituzten “erasoei” buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko.

Eguraldia lagun izan ez ba zuten ere, “tantaz tanta ikasle uholde bat osatu du gu!!”, diote antolatzaileek.

IAk adierazi duenez, asko dira Euskal Herriko ikasleei administratibotik ukatzen dizkieten eskubideak eta egiten zaizkien inposaketak, haien artean: jai egun arrotzak, euskal nortasun eta izate orearen ezabaketa, hezkuntzak sustatzen duen jendarte “indibidual, kontsumista eta otzana”.

Ikasle Egunean, era berean, “esku-bide batzuen jabe gara, baita nahi eta

behar dugun hezkuntza ereduaren erabakitzeko aski helduak ere” aldarrikatu zuten bertaratu ziren ikasleak.

Ikasleen Naziaorteko Eguna

Azaroaren 17an ospatu zen. Ikasleen Naziaorteko Eguna. Hainbat ekintza eta mobilizazio egin ziren egun hori zela-eta. Besteak beste, zenbait gazte Nafarroako Hezkuntza departamentuan kateatu ziren eta Gasteizko Letren fakultatean itxialdia egin zuten.

Iruñean manifestazioa egin zuten *Gure Hezkuntza Erabaki eta Etorkizuna Eraiki* lelopean. Hezkuntzan ezartzen ari diren murrizketak salatzeaz gain, “iraultzarako deia egin zuten, euskal hezkuntza eredu propio bat lortzeko bide gisa”.

Azaroak 11: Jai egun arrotzei ez!


Azaroak 11 jai eguna izendatuta zegoen Frantzian. Egundorretan, Lehenengo Mundu Gerran Frantziaren alde aritu ziren soldaduak omentzen dituzte.

Lapurdikoa, Nafarroa Behereko eta Zuberoko hainbat gazte Ipar Euskal Herriko Kontseilariari gutun bat zuzendu zien jai egun arrotz hori ez ospatzeko dituzten arrazoiak agertuz. Haien esanetan “Oldartzen gaitu Frantziaren nahiagatik hil ziren euskaldunak, euskaraz baizik ez zekitenak, frantsez benderarekin omentzeak”.

Ziburuko (Lapurdi) guraso talde batek herrian berriz ikastola irekitzeko nahia agertu du. Gaur egun hamabost familia biltzen dituen Kaskarrotenea elkarteak prest dago ikastola berriaren egitasmoa aurrera eramateko. Beren haurrak euskaraz hezitu nahi dituzte herriatik kanpora eraman gabe. Haurren elebitasuna bermatzeko ezinbestekoa ikusi dute hezkuntza murgiltze sistema martxan jartzea. Sistema hori ikastoletan soilik erabiltzen denez, eta Ziburun horrelako eskaintza ez dagoenez, gurasoek helburutzat hartu dute ama-ikastola irekitzea. Bide horretan, Seaskarekin hitz egin ondoren, hurrengo urratsa beren egitasmoa publiko zabalari aurkezteko bilera egitea izan da. Gurasoen arabera, egitasmoa Herriko Etxeak euskararen alde daraman bidearen zentzuan doa. 70eko hamarkadan ere izan zen ikastola Ziburun. Ez zen bideragarria izan, ordea. Gaur egun 40 haur ziburutar dira inguruko herrietako ikastolelara joaten direnak. Ikastola berriak, Luma haurtzaindegiaren eta Larzabal kolegioaren arteko lotura egin ahalko luke.

GAIA

Euskal Herriko hezkuntza *ezagutzeko hainbat gako*



Hezkuntza-Sistema zatikatua

Zaila da Hezkuntza-Sistemaz hitz egitea Euskal Herrian; zaila, behintzat, orokorrean aritzea.

Izan ere, zatiketa administrazioen erro sakonak dituzte ere hezkuntza esparruan. Hala, gaur gaurkoz, hiru hezkuntza antolamenduz hitz egiten jarraitu behar dugu. Hirurak, ordea, bi estatuk ezarritako legerien eta curriculumen pean.

Batetik bestera dauden aldeak nabarmenak dira. Lurralde bakoitzeko herritarrek beste lurraldeetako duten ezezagutza, gainera, kasurik gehienetan oso handia da. Jarraian aurkezten dizkizuegunak ezezagutza hori arindu eta bakoitzaren errealitatera hurbiltzeko saiakera bat dira.

500.000 ikaslek bete omen dituzte aurtengo irailean Euskal Herriko eskoletako gelak. Non bizi diren arabera, ordea, eskubide batzuk izango dituzte edo ez dituzte izango.

Euskaraz ikasteko eskubidea, eskubide gisa, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaiko eremu euskaldunetan eta mistoan izango dute. Nafarroa Garaiko eremu ez-euskaldunetan bizi badira, edo Lapurdin, Nafarroa Beherean edo Zuberoan ez dute euskaraz ikasterik izango; ez eskubidez, behintzat.

Eskola-ibilbide desberdinak izango dituzte ere, nahiz eta guztiek batxilergoaren amaieran selektibitatea edo baxoa pasa behar izan. Bost bi hilabetezko izango dituzte Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ikasturtea antolatzen eta hiru hiruileko, berriz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Ondorioz, oporrak ere garai eta luzeera des-

berdinekoak izango dituzte.

Hamaika desberdintasun aurki ditzaiteke lurralde batetik bestera. Horrelakoa da, beraz, euskal hezkuntzari arrezkaria aterako bagenio lortuko genukeen irudia: zatikatua.

Zatiketak zatika eta desberdintasunak desberdintasun, gure eskoletatik aterako diren ikasle horiek izango dira euskal jendartea osatuko duten euskal herritarrek.


Elkarrengana hurbildu eta bakoitzaren errealitatea ezagutzeko ahalegina egin nahi genuen. Elkarren ezagutzatik, norbere ezaugarriak kontuan izanik, Euskal Hezkuntza Sistema eraike dezagun jada abian diren egitasmoetan sakonduz. Garai zailak dira, zalantzarik gabe, euskal lurralde guztietako hezkuntzarako. Lehen estutzen gintuztenei krisia gehitu zaio. Baina krisiaren gordintasunarekin batera, aukera berriak ate joka omen dauzkagu.



G

Euskal Herriko Hezkuntza-Sistemak

Eskola-ibilbideak



Frantziako estatuko Hezkuntza Sisteman irailaren lehenengo astean hasten dira klaseak, eta Espainian, aldiz, bigarrean. Ikasturtearen amaiera, berriz, ekainaren 3. astean bukatzen da Espainiako estatuan, eta uztailaren lehenengoan Frantziako estatuan. Eskola-egutegiak, bi hilabeteko bost zatitan banatzen du ikasturtea Frantziako estatuan, eta, hiru hiruhilabetetan Espainiako estatuan. Nafarroa Garaiko ikasleek, Lapurdikoak, Nafarroa Beherekoak eta Zuberokoak bezala, ez dute eskolarik asteazken arratsaldeetan.

Hizkuntza ereduak herrialdeka

Gurasoak haurrak eskolatzen dituztenean hainbat hizkuntza-ereduen artean aukeratu dezakete.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, A, B eta D hizkuntza-ereduak eskaintzen dira: A ereduak euskara ikasgai gisa irakasten da; B ereduak, berriz, euskara eta gaztelania erdi eta erdi; eta, azkenik, D ereduak gaztelania ikasgai gisa eskaintzen da. Gauregun, Hezkuntza Saila Hiru Eleko ereduak eskaintzen ari da 40 ikastetxeetan proba modura.

Nafarroan, berriz, ikasleak A, B, D eta G ereduak banatuta daude. G ereduak euskararik gabeko ereduak da.

Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatuta dago: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Foru Dekretu batek eremu euskaldunetan A, B eta D ereduak ezartzeko baimena ematen du. Eremu mistoan, dekretu berak, A, B, D eta G ereduak baimentzen ditu. Eremu erdaldunetan, azkenik, A eta G ereduak soilik daude bai-

menduta. Eremu horretan, euskarazko eskaintza egiten duten bakarrak ikastolak dira.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberotan, berriz, euskarak ofizialtasunik ez duenez, irakaskuntza publikoan "A eta B ereduak" eskaintzen dira. Giritinoek ere A eta B ereduak, eredu elebidunak, eskaintzen dituzte. Lurralde horietan guztietan, Seaska da euskaraz murgiltze ereduak eskaintzen duen bakarra.



PISAko emaitzak

Azkeneko hamarkadan, ospea hartu du ikasleak ebaluatzeko PISA (Programme for International Student Assessment) nazioarteko programak. Hiru arlo neurtzen ditu: Irakurmena, Matematika eta Zientzia. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakunde-

ko 33 herrialdek babesten dute.

15 urteko ikasleei egiten zaizkie neurketak. Izan ere, hiru ikasgai horietan, eta, adin horretan, oinarritzko curriculum antzekoa omen da herrialde guztietan.

2000. urtean egin zen lehenengo

proban, 32 herrialdek hartu zuten parte. Haietatik, 26 ELGA erakundeak ziren. Azkenekoan, 2009an, 65 herrialde izan ziren (33 ELGAkoak eta 32 asoziatuak). Herrialdez gain, 14 autonomi erkidegok bere lagin propioa egiten dute; horien artean, Nafarroa eta EAE.

Emaitzak batez beste	ELGA	EAE	Nafarroa	Espainia	Frantzia
Irakurketa	493	494	497	481	494
Matematika	496	510	511	483	497
Zientzia	501	495	509	488	498

Eskola uztea

Espainiako Hezkuntza Ministerioak *Datos y cifras* izeneko txostenean argitaratutako datuen arabera, azken bi urteetan gutxitu egin da garaia baino lehenago eskola uzten duten ikasleak.

Nafarroako tasak, gainditu egiten du Europar Batasunak 2010 urterako ezarritako % 15eko kopurua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa horren azpitik dabilzan bitartean. Hala ere, bi kasue-

tan, nabarmen gainditu egiten da erakunde berak 2020rako ipini duen helburua: Europa osoan % 10eko kopurura jeitsi nahi baita.

	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa	Nafarroa	Espainiako estatua
2008	% 14,7	% 19,2	% 31,9
2009	% 16	% 19,8	% 31,2
2010	% 12,6	% 16,8	% 28,4

Eskolatzea Euskal Herrian

Azkeneko hamarkadetan, Euskal Herrian gertatu den eskolatzea oso altua izan da. Izan ere, ikastolak, duela 50 urte 3 urteko neska-mutilak eskolatzen hasi zirenetik, ohikoa bihurtu da adin horretan etxetik eskolara joatea. Adin hori baino lehenago ere eskolatzen da.

Europar Batasunak 2002an Bartzelonan jarri zituen helburuak erraz gainditu ditu Hego Euskal Herriak, jada. Izan ere, helburu haien arabera, 2010ean 4 urteko haurren % 95 eskolatzen zen asmoa; 3 urteko % 90; eta, 0-2 urte bitarteko % 33.

Hego Euskal Herrian, gaur egun, 3 eta 4 urteko ia haur guztiak daude eskolatan. 2 urtekoak, berriz, Europan 4 urtekoentzat jarritako eskolatze kopuruan aurkitzen dira (% 95), eta, txikien artean, 0-1 urtekoen portzentzaiak % 40 gainditu du, dagoeneko.

Euskal Herriko Hezkuntza Sistemak

Euskalduntzea zenbakietan

Datu orokorrak

	1995ean			2011n	
	D eredia	D+B ereduak	:	D eredia (3 urte)	D+B (3 urte)
Araba	% 21,5	% 49	⋮	% 49,6	% 94,8
Bizkaia	% 31,0	% 55	⋮	% 69,0	% 93,6
Gipuzkoa	% 53,0	% 90,5	⋮	% 87,8	% 97,6
Nafarroa	% 20,0	% 20	⋮	% 24,7	% 24,9
Lapurdi, Nafarroa B., Zuberoa	% 4,5	% 13	⋮	% 11,3	% 25,9

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako bilakaera

2011-12 ikasturteko matrikulazioak			
	A eredia	B ereduak	D eredia
Haur Hezkuntza (3-5 urte)	% 5,0	% 22,9	% 72,1
Lehen Hezkuntza (6-11 urte)	% 7,4	% 27,1	% 65,5
DBH (12-15 urte)	% 14,5	% 28,2	% 57,3
Batxilergoa eta Lanbide H. (16...)	% 59,4	% 1,7	% 38,9

Estatuz kanpoko gurasoen seme-alabak gure eskoletan

Ikasturtea	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa			Nafarroa	
	Ikasleak	Portzentaia	:	Ikasleak	Portzentaia
2006-07	23.565	% 5,1	⋮	9.436	% 9,3
2009-10	30.405	% 7,9	⋮	11.847	% 11,2

Immigrazioaren Euskal Behatokiak argitaratu dituen datuen arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako

unibertsitatez kanpoko irakaskuntza mailetan dauden estatuz kanpoko gurasoen seme-alaben kopuruak % 27

egin du gora 2007tik 2010era arte. Urte hartan, 23.565 ziren eta 2010ean, berriz, 30.405. Horrek, ikasle horien % 8 estatuz kanpokoak direla esan nahi du, jendartean % 6,6 diren artean.

Nafarroan, aldiz, duela hamar urte bilakaera azkarrago igo bazen ere, azken urteetan, estatuz kanpoko gurasoen seme-alaben kopurua ez da hain bestekoa izan.



D ereduak emaitza hobeak lortzen ditu

Hainbat hautaprobatan eta kanpoko ebaluaziotan frogatu denez, D ereduak ikasi duten ikasleek emaitza hobeak lortu dituzte B ereduak edo A ereduak ikasi diuztenak baino.

Azken adibidea, *Eustat* Euskal Estatistika Erakundeak aurkeztutako

2010-2011 kurtsoko unibertsitatean sartzeko hautaprobaren dagokion ikerketa da, eta, emaitzen arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako A ereduak ikasi zuten ikasleek emaitza baxuagoak lortu zituzten, batez bestekoaren azpitik.

Azken hamar urteotan A ereduak ikasitako ikasleek %87k gainditu dute proba; aldiz, D ereduak ikasleek %95ek gainditu dute.

Azken hiru urteetan ere, D ereduak ikasleak nabarmendu egin dira, *Eustaten* arabera, emaitza hobeak lortuz.

Euskal curriculumak martxan

Galdera bat dago Euskal Curriculumaren abiapuntuan: “Zein da arlo bakoitzean 16 urteko gazte batek bereganatu behar dituen kontzeptuak, abileziak eta balioak?”

Galdera hori erantzuteko landu ziren arloak 10 izan ziren: norberaren garapenerako hezkuntza, ingurumen hezkuntza, hezkidetzak, kulturarteko hezkuntza, euskara, historiaren irakaskuntza, eskubide sozialak, parte-hartzea, komunikabideak eta internazionalismoa eta garapenerako hezkuntza.

Lehen fasean arlo bakoitzeko adituek egin zituzten ekarpenak. Ondotik, prozesuaren bigarren zatian, “herritarren ekarpena” deituta, adituek egindako txostenei 320 gizarte eragilek baino gehiagok egin zizkieten ekarpenak Udaltaldeak bideratu zuen eztabaida sozialaren bidez. Horrelako lan bat egin den lehen aldian izan zen: hezkuntzari buruzko hausnarketa egitea herritarrekin eta herri eragileekin, alegia.

Esperimentazio fasean dago orain Euskal Curriculumak, gauza praktikoak egiten.

Aurrera begira, aplikazio fasea hasiko da. 2013-2014 ikasturtean prest izango dira Curriculumean eta kompetentzietan oinarritutako lehen materialak. Eta zazpi urtetan, urte urte, derrigorrezko hezkuntza guztia osatzeko asmoa dute.

Euskal Herria baztertzen Nafarroan

Nafarroako Auzitegi Nagusiak Euskal Herria aintzat hartzen duten ikasliburuak kentzeko agindua eman zuen, Nafarroako Gobernuak hartutako erabakia ontzat emanez. Gobernuaren erabaki haren aurka helegitea jarri zuten Ikastolen elkarteak eta Elkarlanean argitaletxeak, baina Auzitegi Nagusiko ebazpenak dio ikasliburu horiek “itxuraldatu” egiten dutela Nafarroako errealitate politikoa, historikoa, geografikoa, soziala, juridikoa eta naturala.

Liburu horiek Nafarroa Euskal Herrian kokatzen dutela, eta hori eginez, hainbat lege hausten dituztela, Espainiako Konstituzioaren arabera, Nafarroa ez baitago “Euskal Herria izeneko erakunde baten barruan”.

Ikastolen Elkarteak eta Elkarlaneanek sortutako *Ikaslekar* argitaletxeak orain arteko bideari eutsi egingo diola berretsi zuen. Edizio taldeak, ordea, aurrerantzean ez du Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarik jasoko.

Ikaslekarrek, alabaina, orain arteko lan ildoari eta konpromisoari eutsiko dio: “Eskola liburuetan mantendu egingo ditugu azken urteetan hezkuntza komunitatearen gehiengo zabalak euskal curriculumaren inguruan landutako gogoeta prozesuan adostutako edukiak”.

Ikaslekarren ustez, “Ikasmateria, errealitate soziologikoa, historikoa, kulturala eta abar kontuan hartu gabe zorrotzasun zientifiko gabea litzateke”.

Euskal Herriko Hezkuntza Sistemak

Ordezkaritza sindikala

Sare Publikoan

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sare publiko ez unibertsitarioa		
	2007	2011
LAB	49	57
ELA	45	45
STEE-EILAS	34	40
CCOO	43	31
UGT	9	8

Nafarroako sare publiko ez unibertsitarioa		
	2007	2011
LAB	6	9
STEE-EILAS	8	8
CCOO	9	7
APS	7	6
AFAPNA	7	6
ELA	3	4
ANPE	3	4
CSIF	4	4
UGT	0	3

Ekimen sozialeko sarean

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ekimen sozialeko ikastetxeak		
	2008	2011
ELA	421	424
CCOO	131	129
STEE-EILAS	95	95
LAB	46	49
UGT	21	22
Besteak	22	22

Nafarroako itunpeko ikastetxeak		
	2007	2011
SEPNA	87	85
UGT	52	64
ELA	19	16
LAB	2	2
Besteak	0	2

Ikastoletan

Nafarroako Ikastolak		
	2007	2011
LAB	39	40
ELA	7	4

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Ikastolak		
	2006	2010
LAB	150	163
ELA	90	98
Besteak	9	2

Udaberrian,
Etxean hezitzen
laguntzeko
aldizkari
berria



Lehenengo aldizkaria etxean DOAN jaso nahi baduzu,
bidali mezua zure izen-abizenak eta helbidea osoarekin.
hikhasi@hikhasi.com

patricia leon agustí

ELKARRIZKETA

Psikopedagogo hezitzailea

“Ulertzen ditugun gauza gehienak
bizitzako eskolan ikasi ditugu”



patricia leon agustí



Zer da *Proyecto Cero*, eta zer lotura duzu erakunde horrekin?

Proyecto Cero ez da egitasmo bat eta ez da zero. Harvard Unibertsitateko Graduondoko Hezkuntza Eskolako hezkuntza-ikertzaileen erakunde bat da. Nik neuk lotura informala dut erakunde horrekin 90eko hamarkadaren erditik. David Perkins eta Project Zero-ko beste laguntzaile batzuek zuzentzen duten *Ulermenerako Irakaskuntzaren* egitasmoa nahiz Howard Gardnerren *Adimen Askotarikoen Teoria* gaia izan ziren ikertzaile talde horren lanean sartzeko nire abiapuntuak.

Zein da egitasmo horren helburua?

Pentsamenduan oinarritutako esperientzia esanguratsu bihurtu nahi du hezkuntza, horixe da egitasmoaren helburu nagusietako bat. Esanguratsua eta pentsamenduan oinarritutakoa, irakasleentzat eta ikasleentzat.

Non ikasten ditugu ulertzen ditugun gauzak?

Jendeari galdetzen diodanean zer gauza ulertzen dituen, gutxi gorabehera ulertzen dituenak ez ditu eskolan ikasi; ez, behintzat, lau hormen arteko eskola horretan... bizitzaren eskolan ikasi ditu.

Beraz, badugu galdera horren erantzuna, badakigu non ikasten ditugun ulertzen ditugun gauzak. Zergatik da, baina, hain zaila erantzun hori ikasgelan, praktikan, txertatzea? Denok esaten dugu irakaskuntza- eta ikaskuntza- prozesuek esanguratsuak izan behar dutela. Bada, hauxe da ikaskuntza hori esanguratsua izateko lehen urratsa: haurrak bere eguneroko bizitzan bizi duena ikasgelara ekartzea, eta ikasge-

Patricia Leon Agustik hezkuntzari eskaini dio bizitzaren zati handi bat, eta, gaur egun, nazioarteko erreferente bat da.

Bogotako (Kolonbia) San Francisco de Asis eskola sortu zuen. Hezkuntza-maila guztietan aritu da irakasle eta zuzendari. Espainiako estatuan eta Hego Amerikako hainbat herrialdetan lan egin du, *Ulermenerako Irakaskuntzaren* aldeko erreforma kurrikularreko mugimenduan.

Bogotako Garapen Sozial eta Hezitzaileerako Zentroko (FUNDACIES) sortzailea da, eta WIDEWorld-eko gaztelaniako ikastaroetako irakasle ondokoa Harvard Unibertsitateko Graduatu Eskolan, Maria Ximena Barrera kide kolonbiarrarekin batera.

Proyecto Ceroko ikertzaileekin garatu du bere lanaren zati handi bat, eta *Ulermenerako Irakaskuntzaren* egitasmoan eta Howard Gardner-en *Adimen Askotarikoen Teorian* aritu da, batez ere.

Bestalde, hezkuntza-ikertzailea da, eta psikologia komunitarioko irakasle-ikasketak amaitu zituen.

Bilbon izan berri da, *Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioak* egin zuen VIII. Biltzarrean. Han egin genuen zita berarekin eta bertan esan zizkigunak ekarri nahi izan ditugu hona.

“ Alde handia dago ezagutzaren eta ulermenaren artean. Ulermenerako Irakaskuntza Markoa, ulermenari lehentasuna ematen dion hezkuntza begirada da.

”

“ Zergatik eten hori benetan bizi dugunaren eta eskolan irakasten saiatzen garenaren artean?

”

lan ikasten ari dena eguneroko bizitzan integratzea.

Nola iristen da ulmenera?

Nire hitzaldietan, parte-hartzaileei galdetzen diet nola iritsi diren beren us-tez ulertzen dituzten gauza horiek ulertzera. Ematen dituzten erantzunak hauexek izaten dira: esperimintatuz, behatuz, huts eginez, errepikatuz, erabilerak ezagutuz, behar izanez, eztabai-datuz, interesa izanez, irakatsiz, azalduz, eta abar.

Parte-hartzaileek esaten duten horretatik, ikasgelan zenbat egiten den hausnartzea da garrantzitsua. Era berean, akatsaren balioa berreskuratu behar da eskolan. Izan ere, akatsaren bidez, zailtasunaren bidez, gara ditzakegu gure ulermenak eta sormena. Eskolak, baina, zigortu egiten du akatsa. Nola aldatu paradigma hori, zigortu beharrean akatsetatik ikasteko?

Horren ondoren, galdetzen dieldanean nola dakiten ulertzen dutela, erantzunak honako hauek izaten dira: baliagarria delako niretzat edo besteentzat, besteekin egiazta dezakedalako, besteei azal diezaiekedalako, errepika dezakedalako, aurreikus daitekeelako, defenda daitekeelako, akats kopurua gutxitzen delako —baina ez dira amaitzen, akats berriak egiten dira!—, hobetu dezakedalako, goza dezakedalako, bakarrik egin dezakedalako, irakats dezakedalako, barnera dezakedalako, besteei gustatzen zaielako, gauza berriak asma ditzakedalako, besteei ulertaraz diezaiekedalako, eta abar. Inork, sekula, ez dit esan azterketa gainditu duelako dakiela ulertu duela. Haatik, horixe da erabiltzen dugun modurik ohikoena gure ikasleen ulermenak balioesteko: azterketak.

Egia da, ulmenera iristeko egiten ditugun gauza asko dira benetan ulertzen ari garela erakusteko modurik onenak. Beraz, kontu handia izan behar dugu hor. Ondo pentsatu behar dugu zer eskatu behar diegun gure ikasleei, une berean beren ulermenean sakontzeaz gain, ageriko egin dezaten, erakuts dezaten.



Azterketak al dira ikaskuntza ageriko egiteko modurik egokienak?

Gure ikasleei egiten dizkiegun azterketa gehienek nolabaiteko ezagutzamaila ebaluatzen dute. Izan ere, ezagutza une batean duzu ala ez duzu. Edo gutako gehienoi gertatzen zaiguna zera da: azterketa egiteko garaian bagenuen, eta azterketa ondoren, ez. Kolonbiako lagun batek hauxe esaten du: “Ikasle on eta ikasle kaskar gisa sailkatzen gaituzte. Kaskarrei azterketa aurreko bost minutuetan ahanzten zaie, eta onei azterketa egin eta bost minutura”. Hor dago gakoa: zer lan mota eskatuko diet nire ikasleei, ikasgelan ulermenean sakontzen lagun diezaien eta, era berean, zer ulertu duten eta ulertzeko zer falta zaien antzeman dezaten?

Ustez ikusezina dirudiena ageriko egin behar dugu. Hainbeste azterketa-tan, notatan eta inor informatzen ez duten txostenetan pentsatu beharrean, gure moduan pentsatzen duten lankideak bilatu behar ditugu, jarduera onetan elkarrekin pentsatu ahal izateko, ikasleei hainbat diziplinatan arituz beren pentsamendua eta ikaskuntza ageriko bihurtzen lagunduko dieten pentsamenduko trebeziez baliatuta. Talde-lana ezinbestekoa da irakasle-lanean. Orain arte, irakasle-lana oso bakarka egin izanda, eta horrek geldiarazi egiten gaitu aldaketak egin nahi ditugunean. Kideak bilatu behar ditut; haiekin pentsatu, erabakiak hartu eta erantzukizu-

nak partekatu ahal izateko. Ezin dut jarraitu nire eguneroko lana hobetzeko egin nahi nituzkeen aldaketak ez egiteko errudunak bilatzen. Beti dago aldaketarik baimentzen ez duen zuzendaririk, curriculum zurrune giririk, ikuskaririk... Nik neure burua soilik alda dezaket, horixe da errealtatea, eta, hori beste batzuekin batera egiten dudanean, emaitza eraginkorragoa da eta nolabaiteko ziurtasuna ematen dit.

Nondik sortu zitzaizkizun Ulmenerako Irakaskuntzarako ideia horiek?

Maila sozial altuko eskola bateko zuzendaria nintzen. Era berean, maila sozial baxuko eskola bat —guk “zero mailakoa” esaten diogu— sortu nuen. Eta, bi eskoletan, niretzat bizitzan erabakigarriak izan diren bi galdera sortu ziren. Alde batetik, hauxe zen maila sozial altuko eskolan nuen galdera: zer egin dezakegu ikasleen lana ebaluatze-ko dugun erak eskaskeria bultzatzen? Ikasleen kezkarik handiena hauxe zen: zer nota atera behar zuten azterketa gainditu eta ez errepikatzeko. Kezka bakarra nota bat zen, eta nota horretarako ikasten zen. Baina lanen kalitatea nahiko kaskarra zen. Gu eskaskeriarako hezten ari ginen, eta horrek kezkatu egiten ninduen.

Beste alde batetik, beste eskolan ez nintzen horretaz kezkatzen ere iritsi! Fisikoki ez nuen eskolarik, ikastetxerik. Kanean hasi ginen, baina deseroso sa-

patricia leon agustí

E

**“Eskolan,
akatsaren balioa
berreskuratu behar da,
haren bidez gara ditzakegu
gure ulermenak eta
sormenak. Eskolak, baina,
zigortu egiten du akatsa.
Nola aldatu paradigma
hori, zigortu beharrean
akatsetatik
ikasteko?”**

marra suertatu zen. Gurasoen eta irakasleen laguntzarekin, zenbait eskola emateko leku bat konpondu genuen auzoan. Beste ikastetxea erabiltzen nuen arratsaldean, hango ikasleek alde egiten zutenean, beste eskolak emateko. Galdera, ordea, sakona zen: nola bihurtu komunitatea ikaskuntza-iturri? Nire ustez, oso garbi zegoen eskola ez dagoela eraikuntza fisiko baten barnean. Eskola askoz haratago doa, eta beharrezkoa dugu sortzaile izatea. Beharrek bultzatzen du norbera hainbat aukeratan pentsatzera. Bi galdera horiek jakinarazi nizkion Harvarden Project Zeron lanean zebilen lagun min bati.

1994-1995ean, egitasmo horren ait-zindariak ekarri genituen, lehen bisita zuten Kolonbiara. Haiekin lanean hasi, eta aukera berriak zabaltzen hasi ginen. Ez aurrera ez atzera egin ezin genuen egoera batera iritsi ginen: ez genekien nola egin eta nondik heldu, niez nengoen ados egiten genuenarekin, baina ez nekien norantz jo. Orduan, gure artean eztabaida interesgarriak izaten hasi ginen.

Zuk, ordea, bazenituen beste egonezin batzuk...

Hala da. Bada zerbait Harvardek eman ez didana, baina nik beti buruan nuena. Hego Amerika kontinente erabat mendekoa izan denez, jendarte gisa ere mendekoak izan gara. Horren ondorioz, banuen nire baitan beste galdera sakon bat: nola lor dezakegu gure ikasleak, eta baita gure irakasleak ere, matematika, *Mendelen* legea eta beste hainbat gauza jakiteaz gain, pertsona pentsatzaileak izatea, beraien ikaskuntzaren eta garapenaren eragile bihurtzea? Hau da, jende autonomo, bere buruaren jabe, bihurtzea.

Zenbait urte lehenago, Constance Kamii-ren artikulua bat irakurri nuen, Autonomia hezkuntzaren helburu gisa gaiaz ari zena. Artikulu hark hitza jarri zion luzaroan pentsatzen ari nintzenari. Constance Kamiik Jean Piaget-ekin lan egin zuen urte luzez konstruktibismoaren gaian. Azken hamarkadetan, aritmetika nola berrasmatu ikertzen ari zen, lau urteko haurrekin lan eginez.

Nola definituko zenuke autonomiaz ulertzen duguna?

Zer ulertzen dugun *autonomiaz*? Piagetek 80ko hamarkadan esan zuenari erreferentzia eginez: “Norberaren gaitasuna bere burua gobernatzeko, inguruan dituen besteekin ikuspuntua kontuan izanik”. Horrek eskatzen du norbera bere baitatik irten eta “besteekin zapatetan” jartzea, bestea ulertzea, ikasgai dena ulertzea, nor bere burua ulertzea eta bera dagoen mundua ulertzea.

Horren ondorioz, nik uste dut gaur egungo eskolan autonomia ez dela aukera bat. Nire ustez, ia derrigorrezkoa da hiru arlotan lan egitea: adimen-arloan, moral-arloan eta arlo sozialean. Niri eskolara ez zaizkit hankak dituzten buruak iristen soilik, ez zaizkit ointxoak iristen... Niri gizakiak iristen zaizkit (txiki-txikitatik hasi eta unibertsitateera doazen neska-mutilak, graduondo mailakoak barne), sentimendunak, adimendunak eta alderdi fisiko bat dutenak, eta alde horiek guztiek egiten dute bera, norbanako osoa. Ez naiz hitz egiten ari arlo espiritualaz, baina hori, ez bairik gabe, nirekin eskolara heltzen den beste zati bat da.

Zertaz ari zara adimen-autonomia aipatzen duzunean?

Pertsonok ezagutzak besterentzeko dugun gaitasuna da, ez mendez mende errepikatzen goazen lelo bera errepikatzeke. Ezagutza hori hainbat ingurumartan erabiltzeko gaitasuna da, ikaskuntza-sareak sortu ahal izatea da, ideiak konektatu ahal izatea, erantzun soiletik haratago joan ahal izatea.

Piagetek zioen moduan, pentsamendu konkretutik pentsamendu formalera igarotzeko gaitasuna izatea da adimen-autonomia. Ez gara horretan sartuko, baina adibide bat emango dizuet: pentsamendu konkretuaren mailan dagoen pertsonak edo jendarteak, arazo bat duenean, errua nori bota bilatzen du. Pentsamendu-maila formala duen pertsonak edo jendarteak, berriz, arazo bat duenean, aterabideak bilatzen ditu. Erruduna ezagut dezaket, izen bat jar diezaioket, ikus dezaket.



Aterabide bat aurkitzeak, ordea, altuago doan pentsamendu-maila eskatzen du. Galdetu zeuen buruari: zer eratako irakaslea naiz nire ikasleekin, izan 4 urtekoak edo 20 urtekoak? Haien arazoak konpontzen dituenetakoa ote naiz, edo haiek haien kasa konpon ditzaten ahalmentzen ari ote naiz? Zer motatako irakaslea naiz ni? Izan ere, errazagoa da aterabidea ematea: horrekin, handik hilabetera azterketa egin eta gainditu egingo du. Baina, zer gertatuko litzateke azterketa hori hiru urte barru egingo bagenio? Gaindituko ote luke azterketa hori?

Eta autonomia morala diozunean?

Norbanakoak printzipio unibertsal batzuen arabera jokatzeko duen gaitasuna da. Printzipio horiek bakoitzak eraiki ditu besteekin batera, eta komunitate batek partekatzen ditu; besteak beste, honako hauek dira: bizitzarekiko printzipioa, zintotasunarekikoa, errespetuarekikoa eta abar. Zergatik zaigu hain erraz, ordea, bizi dugun unean galtzea? Askotan, nagiak jotzen gaituelako: “A, arazo hori... konpon dezala beste batek”, “Ni horretan ez naiz sartuko”. Aurreiritzi batzuk ditugu, eta horiek eragotzi egiten digute bestearen ikuspuntuaz jabetzea. Zenbaitetan, autoritateari diogun beldurrak zuzentzen du gure jokaera. Baina, nola lagun diezaiekegu gure ikasleei balio horien garapenean? Ez naiz ari, derrigorrean, maila erlijiosoan, orokorrean ari naiz, besteekiko jarreraz, bestea ulertzeko gaitasunaz, eta, batez ere, neure burua ulertzeko gaitasunaz. Zergatik jokaten dut jokaten dudan moduan? Nola lor dezaket ikasleak bere burua ezagutzea, egiten dituen ekintzak noiz diren onak eta noiz txarrak jakin dezan?

Zer esan diezagukezu autonomia sozialari buruz?

Bestearekin harremanetan jartzeko gaitasuna da. Eta, bestearekin esaten dudanean, nire buruarekin, alboko lagunarekin, etxekoekin, jendartearekin, naturarekin eta, transzendentzia batean sinestean badut, izaki transzendentia ho-

rrekin harremanetan jartzeko gaitasunaz ari naiz. Nolako da harreman hori? Zer gaitasun dut “bestearen zapatetan” sartzeko, bestea ulertzeko? Zenbateko gaitasuna dut bestearekin enpatikoa izateko? Horrek pentsatzea eskatzen du, ez da soilik hunkiberatasun kontua. Peter Senge-k oso gogokoa dudan zita bat jasotzen du bere La quinta disciplina liburuan, guri, hezitzaileoi, bete-betean dagokiguna. Hala dio: “Arazoak era ez-bortitzean konpontzea lortu behar da (gogoratu Kolonbiatik natorrela), errespetua oinarri hartuta, elkarrizketaren bidez jarrera bat aurkezteko artea ikasiz; kontua ez da soilik gure jarreragatik errespetu gaitzaten lortzea”.

Hemen, geldiune bat egin behar dugu, eta hausnartu. Nola ikusten naute ikasleek, eta zergatik errespetatzen naute? Gauzak aurkezteko dudan begirunezko eragatik, edo haien iritziak entzuteko dudan begirunezko eragatik? Oro har, guk, hezitzaileok, giderrak eskuetan ditugula sentitzen dugu. Baina, hauxe galdetzen diot neure buruari: zer dira gider horiek? Notak izango dira, edo autoritatea... Ez dugu aipatu ere egiten ezaguera! Horrek hausnartzera bultzatu behar gaitu.

Beraz, hiru autonomia horiek erdiesteko, pentsamendua garatu behar dugu...

Hori da, eta horrek egiten du interesgarri: hiru autonomia horiek garatzeko, pentsamendua garatu behar dugu. “Bestearen zapatak” jantzi ahal izateko, nire burua ulertu ahal izateko, ikasgaia ulertu ahal izateko, ezinbestekoa dugu pentsamenduaren garapena. Pentsamendua garatu ahal izateko, hausnartu beharra dugu, eta, zoritxarrez, eskolak oso denbora gutxi ematen dio hausnarketari.

Galdera handiak bilatu behar ditugu, gainera, haratago garamatzaten galderak, eta ez soilik errepikapenera eta ikasgelako errutinazko lanera garamatzatenak. Aurrera, gero eta aurrerago, garamatzaten galderak. Zer beste erarik dugu pentsamendua garatzeko? Behar bati erantzun behar diogunean, kinka

larri bati. Gelan une larri bat dugunean, moztu edo zigortu beharrean, aukera hori baliatu behar dugu, haren gainean hitz egin, ikasteko aukera gisa ikusi; egunero sortzen zaizkigu ikasteko une horiek; baina, batzuetan, denborarik ez dagoela eta, ihes egiten uzten diegu! Atera denbora, gehiago balio baitu hori ikasteak $2+2=4$ direla ikasteak baino; hori ikasiko dute, seguruenik.

Zer da Ulermenerako Irakaskuntza Markoa?

90eko hamarkadaren erdialdean, *Proyecto Ceroren* barruan garatu zen markoa da. Marko horrek ikertzaile talde bat zuen buru. Eskoletan gertatzen diren esperientzia arrakastatsuak jaso nahi zituzten ikertzaile horiek. Horretarako, hezitzaile onek zer egiten zuten aztertzen hasi ziren, benetan ikasleak nola liluratzen zituzten, nola hunkitzen zituzten ikasteko, galderak egiteko, nola motibatzen zituzten aurrerago joateko. Zer ari zen egiten hezitzailea hori lortzeko?

Bost urteko azterketen ondoren, elementu komun batzuk identifikatu zituzten, eta Ulermenerako Irakaskuntza Markoa izenez ezagutu zena garatu zuten.

Markoa metodologia bat al da?

Inola ere ez, ez da metodologia bat. Ulermena edozeren aurretik jartzen duen hezkuntzaren ikuspuntu bat da Markoa. Horrek metodologia asko barneratzeko aukera ematen du.

Markoak gure lanaren gaineko hausnarketa egitera behartu gintuen, eta horixe izan zen egin zigun ekarpena. Denok hobetu dezakegu egiten ari

patricia leon agusti

E

“ Nola lor dezakegu gure ikasleak, eta baita gure irakasleak ere, matematika eta abar jakiteaz gain, pertsona pentsatzaileak izatea, beraien irakaskuntzaren eta garapenaren eragile bihurtzea? Hau da, jende autonomo, bere buruaren jabe bihurtzea? ”

“ Nire ustez, ezinbestekoa da gaurko eskolak hiru arlotan lan egitea: intelektuala, morala eta soziala. ”

garen hori, oso ongi eginagatik ere. Hobetzeko era egokiena eta eraginkorra egiten ari garen horren aurrean jartzea da, eta horren gainean hausnartzera behartzea.

Ulermenerako Irakaskuntza Markoa, funtsean, teoriaren eta praktikaren artean dagoen etena ixteko zubia da.

Nola laburbilduko zenuke Markoaren espiritua?

Hezitzaile gisa, hiru galdera hauek egin beharko genizkioke geure buruari etengabe ikasturtea hastean, hiru hilean behin, gure ikasleei kontzeptu berri bat eskaintzen diogun bakoitzean, etengabe:

1. Zer da gure ikasleek ulertzea nahi duguna, eta zergatik?
2. Nola erakar ditzakegu gure ikasleak, ulermen horiek eraikitzeke? Hau da, ikasleek guk ulertzea nahi duguna uler dezaten, zer egiteko eskatuko diegu?
3. Nola jakingo dugu guk, hezitzaileok, baina batez ere haiek, ikasleek, benetan ulertzen ari direla?

Ulermenerako Irakaskuntza Markoak lau elementu ditu...

Bai, Markoa lau elementu osatzen dute. Horietako lehena *bari eroaleak* dira. Nire irakasle-lana gidatzen duten galdera handiak dira: norantz joan nahi dugu? Zer esan nahi du matematikoki pentsatzeak? Zergatik da garrantzitsua iraganean gertatutakoa ezagutzea etorkizuna zehazteko? Egiazki, zerumuga zabala eta diziplina bakoitzean dagoen aberastasuna erakusten digute.

Galdera handi horiek badituzte irizpide batzuk: barne-hartzaileak dira, motibagarriak dira (nola eman diezaiokegu zentzua irakasten ari garenera, ikasleentzat zentzua izan dezan?), funtsezkoak dira, eta publiko egin behar dira.

Zer esan nahi du *hari eroaleak funtsezkoak eta publikoak izateak*?

Alde handia dago ezagutzaren eta ulermenaren artean. Ulermenaz ari garenean eta funtsezkoak direla esaten

dugunean, esan nahi du galdera horiek ez daudela soilik ezagutzara zuzenduta. Galderak zuzenduta daude, era berean, metodora, helburura eta komunikatzeko modura. Eta, azken horretan, komunikatzeko moduetan, bete-betean dator adimen askotarikoen kontu hori guztia. Ulertzen duguna komunikatzeko hainbat era daude, diziplina bakoitzak bere sistema sinbolikoa du. Haatik, zernolakoak dira gure ikasleengan erabiltzen eta sustatzen ari garen sistema sinbolikoak?

Galdera handi horiek ikasleekin partekatu behar dira, eta alda daitezke, ikasleek beraiek izan ditzaketan galdera handien eraginez. Gelako hormak baliatu ditzakegu galdera horiek publiko egiteko; ikusteko moduan jarrita, norantz joan nahi dugun adieraziko diete, eta zentzua emango diete ikasten ari garenera. Hari eroaleekin ere, ikasleak pentsatzen eta ikasten ari direna publiko eta ageriko egin behar dugu.

Zein litzateke bigarren elementua?

Mintzagai sortzailea da Markoaren beste elementu bat. Unitateari emango diogun izena da mintzagaia. Landuko dugun kontzeptu handia, ideia edo gertaera da. Mintzagai hori garrantzitsua da, duen ahalmen sortzaileagatik. Hau da, mintzaira sortzailea motibagarria da, funtsezkoa diziplinarako, eta beste diziplinekiko loturak eskaintzen ditu.

Mintzagai sortzaile horiek ateratzeko, honako galdera hau egin diezaiokegu geure buruari: zein da irakatsi behar dudana kontzepturik garrantzitsuena? David Perkins-ek dio hezitzaile batek bere buruari egin diezaiokeen edo erantzun dezakeen galderarik zailena hau dela: irakatsi behar dudana eduki-anabasa horretatik guztitik, zeri helduko diot benetan?

Markoaren beste elementu bat *ulermen-jarduerak* dira. Hari eroaleekin lotura dute, hau da: hari eroaleak eta ulermen-xedeak elementu beraren parte dira; baina hariak barne-hartzaile-agoak dira, eta horixe da alde nagusia. Xedeak askoz ere zehatzagoak dira, eta



beha eta neur daitezke.

Garrantzitsua da jakitea ulermen xedeak ez direla lehen jokabideen arloko helburu gisa ezagutzen genituen haien berdinak (aztertu, ondorioztatu, behatu, alderatu eta abar). Izan ere, ekintza horiek dira, hain zuzen, ikasleei ulermen-jarduerak lortzeko eskatzen dizkiegun ekintzak. Xedeak zein diren jakin nahi badugu, geure buruari galdetu behar diogu zer den ikasleek ulertzea nahi duguna, aztertu, behatu, ondorioztatu, alderatu eta abaregin ondoren.

Kontuan izan behar dugun galdera handia hau da: zer da nire ikasleek ulertzea nahi dudana, dudan denbora errealean?

Ulermen-jarduerak argiak izan behar dute, ikasleek (eta irakasleek) norantz doazen jakin dezaten. Ikasleei gauza asko egiteko eskatzen die eskolak, baina gauza horiek zergatik egin behar dituzten azaltzen duen arrazoi argirik ez dago: horixe da eskolaren arazotako bat. Hau da, ikasleentzat zerumuga ez da argia, eta helburua ez da ezaguna.

Markoak ba al du elementuren bat, pentsamendua ageriko egiteko?

Elementu horiek ulermen-jarduerak dira. Zehazki, helburu ditugun ulermenak lortzeko ikasleei eskatzen dizkiegun urratsak dira.

Urrats horiek ulermena sakontzea ahalbidetzen dute, pentsamendua eta ikaskuntza ageriko egitea, eta ikasleari zer ulertu duen eta zer falta zaion erakusten dio.

Urrats horiek guztiek, neurri batean, mintzagaiari erantzuten diote, xedeei

erantzuten diote, eta baita hari eroaleei ere. Ikus daitekeenez, gelan egiten ari garenari zentzia eta lotura ematea ahalbidetzen du horrek.

Ulermen-jarduerak sekuentzialak dira. Horien artean, beharrezkoak dira hausnarketarako tarteak, zer lortu dugun eta zer falta zaigun pentsatzeko.

Garrantzitsua izango da, beraz, egiten ari garenaren balorazioa...

Bai, noski, laugarren eta azken elementua da: *etengabeko balioespena*. Baina kontuz: etengabeko balioespena eta ebaluazioa oso desberdinak dira. Etengabeko balioespena berrelikaduraz ziklo bat da, ikasleari, eta hezitzaileari, bere lana nola ari den egiten eta nola hobetu dezakeen jakitea ahalbidetzen diona.

Nik esaten diet irakasleei epaile-kapela kentzeko eta ispilu bilakatzeko. Gure egin beharretako bat gure ikasleentzat ispilu-lanak egitea da. Nola? Galderek eginez, aurrerago joatera gonbidatuz, besteekin eztabaida dezaten eskatuz, taldean lan eginez. Garrantzitsua berrelikadurak ahalbidetzea da, non nagoen eta nola hobetu dezakedan ikusiz. Behar-beharrezkoa da irizpide argiak izatea. Bestela, gogoratu esan ohi dena: "Nora goazen ez dakigunean, edozein bide zaigu baliagarri". Irizpideak denon artean eraiki baditugu, zer espero den lanaz jakin dezakegu, eta norantz goazen eta nola irits gintezkeen hara. Horrela, jada ez da irakaslea soilik berrelikadura eskaintzen duena, berrelikadura beste kide batek, gurasoek, aditu batek edo ikasleak berak eskain dezakete.

Hori guztia jakinik, ikasle eskastuak egiten ari garela, zergatik ez dugu ezer egiten hori aldatzeko?

Hezkuntzan aldaketak egitea oso zaila eta motela da. Sinesgaitza da, baina hezkuntza-sistema da urteetan gutxien aldatu den gauzetako bat.

Ni ez naiz ikertzaile izan, baizik eta irakasle. Selektibitatea bizi izan dut, ezinak, gaitegiak, programak, ikuskariak

eta zuek egun bizi duzuen guztia. Ni eskola bateko zuzendari nintzenean, ebaluatzen horren eskasa izango ez zen modu bat aurkitu arte kalifikazioak bertan behera uztea erabaki genuen. Sei hilabete pasatu genituen pentsatzen eta ebaluatzen, ez genuen lehenengoan asmatu, zirriborroak eta probak egin behar izan genituen. Presio askori aurre egin behar izan genion: imajina ezazue, sei hilabete kalifikazio eta notarik gabe! Baina, esperientzia horren alderik aberatsena zera izan zen: denon artean lan du behar izan genuela. Laguntza izan genuen, baina guk geuk aurkitu behar izan genituen erantzunak. Esperientzia horretatik ondo ikasi nuen benetan gauza garrantzitsu bakarra egiten ari garenaz jabetzea eta gogoeta egitea izan zen. Ikasleak, berriz, notez gain, ikasteko beste arrazoi batzuk badirela ikusten hasi ziren.

Ikasleak erakartzeko garrantziaz hitz egin diguzu...

Alde hori oso garrantzitsua da. Beharbada, nahikoa lehorra izan ninteke ni, baina nire lankideak ikasleengana iristeko modu berezia izan dezake. Zergatik ez berarekin aritu, talde lanean? Ulermenerako Irakaskuntza Markotik zerbait ikasi banuen, hausnarketaren eta taldean lan egitearen garrantzia izan zen.

Hausnarketa horri metakognizioa dei diezaiokegu: pentsatzea eta pentsatzen ikastea; eta funtsezkoa da ikasten ari garenaz hausnarketa egitea eta zalantzan jartzea.

Behin, sei urteko ikasle batek, gauzak neurtzen ikasten ari gine-la, zera galdetu zuen: "Zenbaterainoko handia da handia?". Eder-rra galdera! Hori bihurtu zen nire unitate bateko mintzagai sortzai-lea. Edozein adinetan baliagarri zaigun galdera: "Zenbaterainoko handia da handia?".

Kartoizko bi kutxarekin hasi zen dena



Amaia DIAZ DE DURANA
Deustuko ikastola (Bilbo)
2010-2011 ikasturtea (4 urteko gela)

Ikasgelarako proiektuak prestatzen ditudanean, umeen gustuak kontuan izaten saiatzen naiz; hala ere, batzuk beste batzuk baino errazagoak suertatzen zaizkit. Horregatik, denbora luzea eman nuen ume batzuk nola erakar nitzakeen pentsatzen, goiz batean, biribilean, ideia sortu zen arte. Eta espazio-ontzi bat egiten badugu? Ideia eroso kokatu zen nire buruan, eta, kalean edo ikastolako pasabideetan pasatzean, espazio-ontzi bat egiteko baliagarri izan zitekeen zerbaiten bila aritzen nintzen beti.

Eguerdi batean, ikastolako zarama birziklatzeko lekuan, bi kutxa handi eta gogor zeuden nire zain. Horiekin espazio-ontzia egin genezake! Baina gehiago behar nuen. Beste kutxa bat behar nuen, astronauta bat egin ahal izateko. Hirugarrena kalean aurkitu nuen, emakume batek eskuetan zeraman, birziklatzeko edukiontzira botatzeko! Hurbildu nintzaion, eta era guztietako azalpenak eman nizkion kutxa hura eskatzeko. Bost minutu geroago ikastolako bidean nengoen, bihotza taupadaka eta kutxa nire eskuetan.

Benetako unea heldu zen

Asteleheneko biribil horretan, bi kutxa handi jarri nituen umeen aurrean; lehenengo une horiek ez dira errazak; norberak badaki zer landu behar den, zer dagokion adinaren arabera, 2, 3, 4 edo 5 urteko gelan; baina, nola landu? Nola jorratu bide horiek? Nola heldu umeengana? Nola ez galdu umeen eta nire itxaropenak? Nola gorde beti bihotzean ikasteko poztasun hori? Ez da erraza. Egunero landu behar da hori.

Baina, espazio-ontziaren ideiarekin guztiak ados ez badaude, ez bada onartzen, agian pentsatutakoak ez du balio, eta berriro hasi behar.

Horregatik, kutxak haien aurrean zeudenean, nire galderak, nire itxaropenak, nire zalantzak eta beldurrak bide berean zeuden, denek parte har zezaten.

- Zer dira?
- Nolakoak dira?
- Gustatzen zaizkizu?
- ...

Umeen erantzunek –udaberriko euria bezala, bat-batekoak dira– dena

bustitzen dute. Ez dute arazorik; altxatu egiten dira; ukitu egiten dute; mugitu egiten dira; haien artean elkarrizketak sortzen dira... eta, gero, tutoreak dio, ilusio handiz:

- Zer egin genezake bi kutxa hauekin?

Arrapaladan datoz erantzunak, adostasunak eta eztabaidak: sofa bat, etxe bat, Van Gogh-en irudi bat, kamioi bat, jirafa bat; “nave espacial” bat... Bai, espazio-ontzi bat –irakaslearen erantzunak alde hezitzailea du beti–.

Hurrengo pausoan, eskolako ohi-turari jarraituz, haien begi aurrean idatzi genituen ideia guztiak, eta, gero, une garrantzitsuena iritsi zen: bozkatu egin behar zen. Autoaren ideia eta espazio-ontziarena parekatuta egon ziren, eta, azkenean, puntu bakar bateko abantailaz, espazio-ontziaren ideiak irabazi zuen. (Ez zen izan nire puntua, nik ez baitut bozkatzen).

Kutxa horiek egun batzuk pasatu zituzten gurekin, ikasgelako umeek ikusi, ukitu eta mugitu ahal izateko nahiz berorietan jesarri ahal izateko.



Mikelek ekarritako espazio-ontziak eta hiru astronautek, Collins-ek, Armstrong-ek eta Aldrin-ek, arrakasta handia lortu zuten.

Umeek egindako espazio-ontziek beren lekua irabazi zuten, bai ikasgela barnean bai pasabidean.

Lehenengo pausoa eman behar genuen: arbelean, begi distiratsu haien aurrean, paper handi eta zuri bat kokatu genuen. Eta, gero, elkarrizketa sortu zen. Ea, zer dakigu izarrei buruz? Eta Eguzkiari buruz? Eta... Indartsuak eta alaiak izan ziren haien erantzunak, denak arrazoibidez jantzitakoak.

Harrigarriak dira beti haien erantzunak. Zenbat dakiten! Esandakoak idatzi egin genituen; bukatu ondoren, ikasgelako lan-txokoa geratu ziren.

Orduko hartan ere ezinbestekoa nuen gurasoen laguntza, eta, ohar-liburuetan, etxera eraman zuten informazio-eskaera.



Apolo XII.aren erreplika bat zen.



Aurrera goaz...

Umeak gogo biziz zeuden. Ikasgelara sartu bezain laster, hantxe zeuden bikutxa handi horiek. Eta, biribilean, lehenengo jarduerak egin ostean -zerrenda pasatu, denboralizazioa, eta abar-, gaiari heltzen genion.

Informazioa berrikusi egin genuen, eta, ikasitakoaren arabera, aldaketak egiten ziren. Guztien ideiek zuten lekua, paper zati handi eta zuri hartan:

Muntatu ondoren, ikasgelako mahai batean jarri zen. Espazio-ontzia eredu izanik, marraztea proposatu nien.



Laster iritsi ziren erantzunak. Berehala, denbora laburrean, informazio asko eta era askotarikoa heldu zitzaigun ikasgelara: liburuak, aldizkariak, jostailuak, puzzleak, argazkiak, Internetetik ateratakoak, denetarik.



Nikolek horrelaxe ekarri zuen.

Ez dakit zer izan zen onena, marrazkiak ikustea edo haien elkarrizketak entzutea.

Eguzkia handia da; planeta asko daude; gure planeta Lurra da...

Poliki-poliki, gure proiektua bere

bidea egiten hasi zen. Beste gela batera joan ginen, munduko bola baten bila. Ikasgelan, mundu-mapa bat dugu (Petersena), baina, munduaren benetako forma ikusteko, ezinbestekoa egiten zitzaigun munduko bola bat izatea.

Elkarrizketa hartan eta munduko bola aurrean izanik, gure inguruan dauden beste planeta batzuk pitin bat hobeto ezagutzeko, zer egin genezakeen zehaztu genuen. Baina, akordio guztiak elkarrizketen ondorio dira, eta horrelaxe hasi zen gurea:

- Espaziora joan gaitezke!
- Bai.
- Nola?
- Espazio-ontzi batean sartuta.
- Bai.
- Baina, agian, arnasa hartzeko zer-bait beharko dugu han kanpoan...
- Ez, ez dugu ezer behar.
- Ni joan naiz, nire amarekin, eta lasai asko joan gara...

Interneten, espaziora nola joan beharko genukeen ikusten hasi ginen, astronautek zergatik behar dituzten jantzi berezi horiek hobeto ulertzeko.

Eta lanari ekingenion. Egunero, planeta bat aukeratzen genuen. Lehenengo, horri buruz genekienaz hitz egiten genuen; gero, Interneten bitartez, haren irudia ikusten genuen, eta haren soinua entzuten. Unerik garrantzitsuena heltzen zen gero: astronautaz "jantzen" ginen, ikasgelako argiak itzaltzen ziren, eta, planetak ateratzen duen soinua entzuten genuen bitartean, mugimendu leunez, ikasgelan zehar mugitzen ginen, alde batetik bestera lasai, gure Astro panpina artile zati batez eskegita eta mantalaren aurreko aldean espazio-ontzi txiki bat itsatsita genuela.

Azkenean, ikasgelako txoko batean, gure Astro (panpina) planetei buruzko ezaugarriak kontatzen zizkigun: nola mugitzen den Lurra edo Eguzkia; zer planeta dagoen urrunago; zer kolore ikusten diren; non dagoen bizitza, eta non ez; nolakoa den espazioa; kolorerik baduen; espazioan zergatik flotatzen dugun...



Horrela, gure eguzki-sistema zabalzen hasi zen, ikasgela barruan.

Eguneroko bidaia berezi hori egin ostean, bi motatako lanak egiten hasten ginen. Umeak talde txikitik banaturik, batzuk eguzki-sistema egiten hasi ziren, gero pasabidean jartzeko: espazioa, planetak, izarrak...

Liburuxkaren bitartez, honako hauek lantzen genituen: irakurketa eta idazketaren hurbilketa; matematikari dagozkion kontzeptuak; esku-trebetasunak; saiakera; haien arteko harremanak...



Bestalde, lan-txokoan, nor bere liburuxka egiten hasi zen.



Baina, geure biderei jarraitzen genion guk, eta hasieran liburuxka horretan programatu gabeko beste ideia batzuk txertatu genituen; horren arabera, kontzeptu berriak sartu genituen: zer behar den izarrak ikusteko; zergatik flotatzen dugun espazioan...

Erantzunak bilatzeko eta gure lana ulerkorrago egiteko, aita baten bisita ere izan genuen. Katalinen aitak, jolas baten bitartez, grabitatea zer den azaldu zigun.



Gainera, ekarritako informazio guztia umeen eskura zegoen beti, nahi zue-
nak ikusteko, kopiatzeko, jolas egiteko
edo marrazteko.



Egunero, gure lana aurrera zihoan,
presa barik. Planetak ikusi genituen, eta
modu askotan azaldu genituen gure
koadernotxoan.

Planeta bakoitzeko ezaugarri bat
aukatzen genuen, eta, gero, idatzi egi-
ten genuen, edo kopiatu, edo hizkiak
bilatzen genituen. Gainera, planeta ba-
koitzak bere ezaugarriak dituenaz,
hainbat modutan irudikatu genituen:
plastilina erabiliz, collageak eginez, ma-
rraztuz, margotuz, paper zati politak
jarriz...



Zoragarria izan zen eguzki-sistema-
ra egindako bidaia.

Kanpoko eta barruko eguzki-siste-
ma bukatu eta gero, gure espazio ontzia
egin behar genuen, eta, logikoa denez,
gure astronauta-jantzia ere egin ge-
nuen. Horretan aritu ginen egun bat-
zuetan: neurria hartzen, koloreak auke-
ratzen, gure espazio ontziari izen bat bi-
latzen...



Bien bitartean, ikasgelako erritmoak berean jarraitzen zuten: jolasak ez du galdu behar duen garrantzia.



Eta, gurean, beti daukagu denbora artista moduan aritzeko.



Horrelaxe joan zen eguzki-sistemara egindako bidaia. Umeen indarrak, ikasteko gogoak, barreak, ideiak, ilusioak nireekin dantzatu zituzten hilabeteetan. Eta, azkenean, eguzki-sisteman egon ginen.



Bidaia guztiek beste bidaia berezi batzuk ekartzen dituzte, eta gureak Kandinsky-rengana eta Müller-enganara eramaten gintuen.



Jatorrizkoa: Müller.
Kopiaren egilea: Katalin



Jatorrizkoa: Kandinsky.
Kopiaren egilea: Zaloa



Jatorrizkoa: Müller.
Kopiaren egilea: Haizea

Bukatu eta gero, eguzki-sistema txiki bat geratu da ikasgelan. Kanpoan jarritakoaren elementuak ikasgelako hormetan banatuta daude. Etxe-txokotan, espazio ontziak bere lekua topatu du, eta gure astronauta alfonbran bertan dago.

Orain, gure ikasbidaia honetan, Pablo Picasso-rekin egin dugu topo, eta, gero, Joan Miró, Pollock eta, bost urteko gelan, norberak gustuko dituenak izango ditu zain.

Oharra:

Proiektua, berez, luzea izan zen. Dena dela, horretaz gain, proiektu bat egiten dudanean, sortzen diren ideia berriei lekua uzten saiatzen naiz beti; bestalderik, ez dut inoiz bukatzeko presarik izaten, bidean beti ikasten baita.

Horregatik, proiektuaren egitura edo umeek egindako lanaren emaitza ezagutu nahi badituzue, dokumentazio eta argazki gehiago bidaltzen dizkizuet.

Espero dut zuen gustukoa izango dela. Guk primeran pasatu dugugu!

Kosmodisea, abentura lantaldean

Kosmodisea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzaren eta Jakintzaren Gizartea deritzon departamentuaren ekimena da, eta aurten 5. aldiz egingo da. Kultura ekintzailearekin eta digitalarekin bat datozen gaitasunak sustatzea da Kosmodisearen helburua, talde lanaren bidez eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiliz. Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Heziketa Zikloetan dabilzan ikasleei zuzenduta dago ekimena.

Gaur egungo jendaratean, jarrera ekintzailea izateak garrantzi handia du hainbat balio lantzeko: sormena, norberaren buruarenganako konfiantza, ekimena, malgutasuna, talde lana, tolerantzia, analisirako gaitasuna, ahalegina, kritikarako gaitasuna, nahimena, hausnarketa, lidergoa, jarraikitasuna, hutsegitearekiko tolerantzia, gatazkei aurre egiteko gaitasuna, jendartearekiko erantzukizuna etab. Gainera, bestelako trebetasunak funtsezkoak dira ezagutzaren gizartean, eta Kosmodiseak, talde lanaren laguntza baliatuz, balio eta trebetasun horiek bultzatu nahi ditu.

Kosmodiseak ikasleei planteatzen dizkien eginbeharrak aurrera ateratzeko lagungarriak dira IKTak. Kosmodi-



seako wikian talde lanaren nondik norakoak azalduko dira, eta blogetan burutzen diren lanak argitaratuko dira. Ideiei buruzko hainbat produktu egingo dira, bideoak, argazkiak eta ahotsak editatzeko programekin. Era berean, ondo pasako dute simulagailuarekin. Tresna horiekin lan egiten duten bitartean, hainbat trebetasun lantzeko eta gaitasunak barneratzeko lehen urratsak emango dituzte ikasleek.

Beraz, webeko elkarlanerako jolasa da Kosmodisea. Ikastetxe bakoitzeko geletan talde lana eta ikastetxeen arteko lana ahalbidetzen du. Ekimenerako gaitasunaren alde guztiak barneratzen dituen egitasmo baten garapenean lan egitea proposatzen da (diagnostikoa, ideien proposamena, haien garapena, haien lorpenen eta eraginaren ebaluazioa), ekintzailetasun kulturaren in-

guruko balioak lantzeko. Ikasturtearen dinamikan txertatutako sistemak honako hauek ahalbidetu nahi ditu:

- Ikasgai guztietako irakasleen parte hartzea.

- Ikasleen autogestioa (ideia eta egitasmoen proposamena, egitasmoen garapena, erdietsitako lorpenen eta burututako lanen banakako ebaluazioa eta kanpo ebaluazioa).

- IKTen erabilera trinkoa.

- Ikasleek, irakasleek eta eskolek berek egindako ahaleginaren ezagutza soziala, ekitaldi berritzaile baten bidez.

- Kanpoko laguntza talde baten sendotzea. Talde hori antropologian, pedagogian, IKTetan, antolakuntza kulturalan, jolas didaktikoetan eta abarretan adituak diren pertsonak osatzen dute.

Informazio gehiago:

www.kosmodisea.net

Eskoletako jantokietako kudeaketa zuzenak ba al du eraginik gure ikasleen elikaduran eta osasunean



Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez agindu zuen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola publikoetako jantokiak kudeaketa zuzenera pasatzea. Horren ondorioz, *catering*etxeek hornitzen dituzte eskola horietako jantokiak.

Orduetik, paralelotasun handia dago eskoletako jantokiek eta nekazaritzak egin duten bideen artean. Bietan, denek berdin jan behar dugula dioen ideia gailendu da. Haren izenean, ahaztuz joan gara tokian tokiko produktuak, elikadura-ohiturak, eta abar.

Kudeaketa zuzenak eskolei garbitasunerako, jangelarako eta zaintzarako laguntzak eskaini zizkien. Horren ondorioz, eskolek jada ez dituzte haien menuak prestatzen, ez dute erosketarik egiten, ez dute janaririk prestatzen. *Catering*ak hartzen ditu bere gain lan horiek guztiak, eta elikaduraren uniformizazioa gauzatzen joan da.

Kudeaketa mota horrek zerikusi zuzena du eskoletan gero eta gehiago agertzen diren alergia eta intolerantzia kasuekin. Osasun-arazo handiak a-



Arantza ARRIEN
BASERRITARRA, EHNE BIZKAIA

gertzen ari dira, birusen aurkako erresistentziak... prozesuak asko korapilatzen dira. Jada ezin diete haur guztiei otordu bera eskaini. Haur batek menu bat behar du, beste batek beste bat. Eta horiez da errentagarria *catering*entzat.

Etorkizuna izate aldera, nekazariak inbertsio handiak egitera, industrializatzerara, mekanizatzerara, produktu bakkarrera espezializatzerara eta abarrera derrigortuz, nekazaritza eredu jakin

bat garatu da. Eredu horren ondorio dira klima-aldaketa, uraren eta lurraren kutsadura, eta gero eta osasun arazo ugariagoak. Urte hauetan, milaka baserriarrek utzi dute beren jarduna, eta mundu guztian gertatu da hori. Dirulaguntzen truke, hori ere.

Laguntzak tranpa izan dira, bai eskolentzat eta baita baserriarrentzat ere. Nekazaritza-eredu horretan baserriar asko sartu zen moduan, ia eskola denak sartu ziren kudeaketa zuzenean. Dirulaguntza horiek derrigortu egiten gaituzte era batera produzitzera, gutxieneko inbertsio batzuk egitera, eredu bat garatzera, espezializazio mota batera, gure ekoizpenen salmenta beste batzuen esku uztera.

Diruz laguntze hori errenta bihurtu da askotan, ordea. Eskolarentzat eta baserriarrentzat sortu den eredia erabat mendekoa da. Dena kanpoan erosi behar da. Nekazaritzaren kasuan, ezin dituzu zure haziak izan, ezin dituzu kontserbak egin eta auzokoarekin trukatu, etab. Erosi egin behar dira haziak, ongariak, eta abar.

Eredu horiek elikaduraren eta elikagaiengaineko desinformazioa ekarri dute. Lehen esaten zen hirietako haurrek ez zekitela esnea nondik zetorren, tetrabrikan ikusten baitzuten soilik. Gaur egun, herri txikietako haur askok ez dute identifikatzen plateran dutena oilaskoarekin. Izan ere, bularkiak izaten dira beti, ez dituzte hegoak edo izterrak aurkituko menuan. Oilaskoa bere zati guztiekin banatzeko ohitura galdu egin dugu.

Hori gertatzen bada herri txikietako haurren artean, pentsatu zer gerta litekeen hiri handietako haurren artean. Horraino heldu gara.

Kalitatea ulertzeko moduak

Gaur egun, uraza batean barraskilobat topatzea osasun-arazo bihurtu da. Lea-Artibaiko eskolako jangelako *cateringa* aztertu genuen: menuak, nutrizio-arloa, eta abar. Jangela horretan, janaria prestatzeko erabiltzen diren produktu guztiek kilometroak eta kilometroak egiten dituzte haien jatorritik sukaldera iritsi arte. Produktu gehienak oso urrunekoak dira. Produktu horiek, ordea, kalitate-arauak betetzen dituzte, denek. Arau horiek distribuzio-kate eta denda handien neurria eginda daude, horixe da koska. Hori da kalitatea eta hori da elikadura-segurtasuna.

Guretzat, berriz, nola produzitu den, lurrak eta landareak berak zein zaintza izan duen, landu duen pertsonak zein zaintza izan duen, zein animalia mugitu diren hor, zein ongari erabili den, zenbat kilometro egin dituen jatorritik sukalderraino, zer banaketa mota dagoen, osasun-sistema hori jasangarria den eta etorkizuna duen ala ez ezagutzea, horixe da kalitatea. Adibidez, Markinako eskola-kudeaketa zuzenean sartu zenean, berehala hasi ziren okelaren gaineko kexak. Markinan okela asko dago, eta okela jateko ohitura handia. *Cateringak* kexei eman zien erantzuna mikrobiologikoa izan zen, produktuak oso kalitate ona zuela esan zuten. Eta hala zen, legez ezarritako ka-

litate-arau guztiak betetzen baitzituen. Okela Poloniatik ekartzen zuten, kameretan eta hainbat kontserbazio-sistema erabiliz.

Elikadura-burujabetza, gure aukera

Elikadura, eskubide baina, negozio bihurtu da gure jendartean. Horren aurrean, munduko nekazari asko biltzen dituen “Via campesina” elkarteak elikadura-burujabetza bultzatzen du, eta hori da gure aukera.

Hitz egin dezagun arduratzen gaituzten gauzez: osasuna, nutrizioa, lanbaldintzak, baserriarren iraupena, ingurumena, prezio merkeak, geroa izatea, eta abar. Hori guztia da elikadura-burujabetza. Gai horiez guztiez hitz egin behar dugu guztion artean, eta erabaki egin behar dugu, zer egin nahi dugun erabaki behar dugu; politikoki eragin behar dugu, adostutako bide horretan gauzak aldatzeko. Horrela ulertzen dugu guk burujabetza, eta hori da gure aukera eta etorkizuna.

Elikadura-burujabetzaren bidez herriko ekonomia sustatzea lor dezakegu. Munduko beste hainbat lekutan egin diren ikerketek argi utzi dute—Lea-Artibain egin genuen ikerketak utzi zuen bezala—30 familiak baserriar bat mantentzeko, gaur egun ekoizten duena kontuan hartuta.

Eskola burujabea bada eta erabaki badezake erosketak kudeatzea, pentsa ezazue zer suposa dezakeen horrek herriko okindegia rentzat, harategia rentzat, denda txikiarentzat, eta abar. Gure herriko motor izatea ez ezik, gure inguruko herrietako motor izatea ere lor dezakegu. Zalantzarik gabe, lanpostuak sortuko lirateke bide horretatik.

Elikadura, eskubide baina, negozio bihurtu da gure jendartean. Bestalde, denek berdin jan behar dugun ideia gailendu da.



Elikadurarekin harreman zuzena izatea lortuko genuke, eta, elikadurari dagokionez, informazioa eta heziketa ere lortuko genituzke, egiten ari garen bide honetan atzera eginez.

Baserriarrak prest gaude laguntzeko, elikagai guztiak bertakoak izan daitezten eta ekologikoki ekoiztu daitezten. Hala ere, eskoletan lan handia dago egiteko. Sukaldeko langileak ohitu egin dira jaki izoztuetara, elikagaiak ez zurrizera, eta abar. Begiraleei ere lan handiagoa eskatuko die. Izan ere, egun askotan haurren gustukoak diren elikagaiak soilik osatzen dituzte eskola-menuak, ez dira ematen zuritu behar diren fruituak, zuritzeak aparteko lana eskatzen duelako, eta abar. Gauza horiek denek badute konponbidea, baina atal bakoitza landu behar da, eta, horretarako, ezinbestekoa da langileak prestatzea, sortutako ohiturak eta dinamikak alboratzeko. Egunero milioi bat o-tordu ematen dituen Frantziako departamentu batean egin dute; hemen ere posible litzateke, beraz.

Obarra: Arantza Arrienek “Elikadura eta Eskola” jardunaldietan parte hartu zuen, Larrabetzun.



VI. jardunaldiak

abenduak

16

donostia
miramar
jauregia

haur hezkuntzaren
garrantzia
euskararen jabe-kuntzan
eta garapenean

egitaraua

9:00 Materialaren banaketa

9:15 Ongi etorria :

Ikasle euskaldun eleaniztunak lortzeko Kontseiluak adin-tarte horretarako duen proposamena

***Paul Bilbao Sarria, Kontseiluko idazkari nagusia**

9:45 Arlo emozionalak edota enpatiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen garrantzia

***Kamele Perez, Mondragon Unibertsitatea**

10:15 Haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzeko KGNZ tresna: 8-50 hilabete bitarteko en
emaitzak

***Andoni Barreña, Salamancako Unibertsitatea; Marijo Ezeizabarrena, EHU eta Iñaki Garcia, Mondragon Unibertsitatea**

11:00 Atsedena

11:30 Ikastetxeetako praktika onak

12:30 MAHAI-INGURUA: **Maria Jose Azurmendi (psikologoa), Paulo Iztueta (soziologoa) eta Kamele Perez (didaktikaria)**

13:30 Bazkaltzeko atsedena

15:30 Haur Hezkuntzako 0-6 aldiko hizkuntza-murgiltzeari begirada bat: Esperientziak eta hausnarketak

***Vanessa Amat Castells eta Llorenç Comajoan Colomé, VICeko Unibertsitatea**

Izena emateko: kontseilua@kontseilua.org. Parte hartzea doakoa izango da.



ELIZKORTZAREN GAZTARTE ERABURLEKOA
KONTSEILUA

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

abendua

berriak

Nafarroan urratu zen ametsa



Ikaslekar argitaletxeak *1512 Nafarroa, amets urratua* kaleratu berri du.

Argitalpena komiki batek eta hura lantzeko unitate didaktikoak osatzen dute.

Nafarroako Erresumaren azken egunetako historia kontatzen zaigu, eta arreta berezia jarri da 1512ko inbasioan

eta ondoren etorri zen 18 urteko gerra luzean.

Komikiak Joseba Asironen gidioa eta Martin Alzueta *Martintxo* marrazkilaria irudiak ditu. Xabierko San Frantziskoren bi anaia dira komikiko protagonistak, konkistaren gertakari guztietan partaide eta lekuko izan zirelako: 1512ko inbasioan; urte horretan bertan erresuma berreskuratzeko egin zen saiakeran; 1516an Pedro Mariskal birkonkistatzeko egin zuen ahaleginean; 1521eko Noaingo gatazkan eta 1522ko Amaiurko gertakarietan.

Komikiak hiru zati ditu. Lehenengoak, hitzurre gisa, Nafarroako erresumara arteko historia laburtzen du irudietan. Bigarren zatia, epilogo batean, geroztik erresumak izan duen Gamazadara arteko bilakaera agertzen du. Eta, azkenik, hirugarren zatian, pertsonaia galeria batekin amaitzen da libu-

rua.

Asiron historiagilea da, Nabarraldeko kidea eta San Fermin ikastolako irakaslea. Euskal historian eta, bereziki, Nafarroakoan aditua da eta ikerketa ugari egin ditu konkistaren inguruan. Heldu den urtean 500 urte beteko dira Nafarroako erresuma konkistatu zutela, eta gertakari hori ezagutarazteko Nabarraldeko antolatu dituen ekintzen artean unitate didaktiko bat prestatzeko proposamena egin zion Ikastolen Elkarteari. Aldi berean, Nafarroako UNESCOk gai beraz komikia egiteko ekimena jarri zuen abian. Hori dela-eta, bi produktuak batu dituzte.

1512: Nafarroako konkista

Izen hori darama unitate didaktikoak. Bertan, Nafarroako Erresumaren konkistaren aurrekariak eta ondorengo bilakaera jaso dira.

Kalitatea Haur Eskoletan

Jendetsuak eta arrakastatsak gertatu ziren azaroaren 11n eta 12an egin ziren *Kalitatea Haur Eskoletan* jardunaldiak. Lehehengo saioa Durangon egin zen, eta bigarrena, berriz, Donostian. Haurren ongizateaz eskolan aritu ziren Iñaki Larrea eta Alexander Barandiaran Mondragon unibertsitateko irakasleak. Ondoren, Elia Martin Sant Adrià dels Besos-eko Josep Miquel Céspedes Haur Eskolako eta Rosa Ferrer Sant Cugat del Vallés-eko Cavall Fort Haur eskolako irakasleak aritu ziren haur txikiekin bizitakoaz eta ikasitakoaz. Azkenik, 0-3 urtetarako eskolen kalitatea aztertu eta hobetzeko kalitate eredu bat proposatu zuen Txusma Azkonak, Lizarrako Arieta Haur Eskolako zuzendariak. Eredu hori Nafarroako 0-3 plataforman garatu zen.

Larunbateko saioan, gainera, hizla-



ri guztien artean hainbat gai jorratu zuten mahai-ingurua izan zen.

Oso interesgarriak izan ziren hizlari bakoitzak bere ikuspuntutik haur txikiei buruz eta haien hezkuntza eta ongizateari buruz esandakoak. Horrez gainera, parte hartze handia izan zen bi saioetan eta interesgarriak izan ziren, era berean, partehartzaileek proposatu

zituzten galderak eta hausnarketak.

Denek bat egin zuten adin tarte horrek pertsonen garapenean duen garrantzia azpimarratzerakoan eta denek azpimarratu zuten, era berean, haurrari, bereziki adin horretakoari, beste begirada bat ematearen beharra. Jardunaldian jorratutakoen berri zabalagoa izango duzu hurrengo zenbaki batean.

Bizialdi osoko ikaskuntza

Eusko Jaurlaritzak antolaturik *International Congress - Bizialdi osoko Ikaskuntza jardunaldiak* egin dira Donostiako Kursaal jauregian azaroaren 7an, 8an eta 9an.

Hiru egunez hainbat aditu aritu ziren bizi osoan irauten duen, edo iraun beharko lukeen, ikaskuntzaren gainean. Haien artean, Jacques Delors aritu zen, *Hezkuntza ezkutuko altxorra da: ikasten ikasten, egiten ikasten, izaten ikasten, elkarbizitzen ikasten... 15 urte pasa ondoren zein da hezkuntzak ezkututzen duen altxoraren balioa?* hitzaldia eskaintzen. Delors Europako Batzordeko lehendakari ohia da, eta XXI. menderako Nazioarteko Hezkuntza Batzordeak UNESCOri idatzi zion txostenaren batzordeburua da.

Harekin izan ziren, baita ere, beren hitzaldiak eskaintzen, José Joaquín Brunner, Chileko unibertsitateko irakasle eta ikerlaria; Bryony Hoskins, Southampton unibertsitateko doktorea; Margaretta Allen, Gotenburgoko (Suedia) eskualdekoa; Craig Mahoney, Higher Education Academy UK akademiako zuzendari nagusia; Paolo Federighi, Florentziako Unibertsitateko irakaslea; eta, Arne Carlsen, UNESCOren Bizi Osoko Ikaskuntzarako Institutuko zuzendaria, besteen artean.



Elhuyar STIMULA ikerketa-proiektuaren koordinatzaile

STIMULA (*Stimulating Science And Technology Competences Throungh Innovative Means For Teaching And Learning*) hezkuntzako ikerketa-proiektu europarra da. Egitasmoa Europako Batasunak Finantzatu du eta Elhuyar Fundazioak koordinatu du. Egitasmoak bi urte iraungo du eta helburua, 12-18 urteko gazteak zientzia eta teknologia gaietan motibatzea da. Elhuyarrek zuzenduko duen egitasmoan ondoko erakundeak arituko dira elkarlanean: Zaragozako unibertsitatea (Espainia); St. Mary's University College Belfast (Ipar Irlanda/Erresuma Batua); Steinbeis ikerketa zentroa; eta National College Nicolae Titulescu ikastetxea (Errumania). Denen artean partzuergo bat sortu dute.



Elhuyarrek zuzenduko duen egitasmoan ondoko erakundeak arituko dira elkarlanean: Zaragozako unibertsitatea (Espainia); St. Mary's University College Belfast (Ipar Irlanda/Erresuma Batua); Steinbeis ikerketa zentroa; eta National College Nicolae Titulescu ikastetxea (Errumania). Denen artean partzuergo bat sortu dute.

Ikasleei zientzia eta teknologia gaietan interesa pizteko hezkuntza-metodologia berriak sortu nahi dituzte, ikastetxeak eta zientzia eta teknologiaren esparruko erakundeak elkarlanean jarritz. Bere lanean Europako ikasleen iritziak izango dituzte kontuan, eta trebakuntza-plangintza berezia egingo dute irakasleentzat.

Ijitoei buruz hitz egiten duen eskola liburua



Eskola liburuek ijitoez hitz egiten ez zutela eta, *Miguel eta Nekane*, ijito herria

historian komikia argitaratu du Gipuzkoako Etorkizunerako Ijitoen Elkarteak. Liburuaren helburua, ijitoen herriaren historiako zenbait pasarte modu gertukoan azaltzea da, eta topiko eta estereotipoak haustea. Komikiaz gain, unitate didaktiko bat ere badu egitasmoak. Bertan, ariketak proposatzen dituzte eta informazioa bilatzen jarraitzea sustatu nahi dute. Egileak, ikasleei jakin-mina pizten ahalegindu dira, haiek beren kabuz ikasten jarraitzeko.

Komikia Agifugi elkartearen eskura daiteke eta uniate didaktikoa, berriz, www.futurogitano.com helbidean.



Gorputza eta Psikomotrizitatea

Bergarako Psikomotrizitate Eskolak antolatuta (Gipuzkoako UNED), X. Psikomotrizitate praktikari buruzko jardunaldiak egin ziren azaroaren 4an, 5en eta 6an Gasteizko Europa Jauregian.

Parte hartu zutenen artean, hauek egongo dira:

- Jose Angel Rodriguez sendagilea "Gaur egungo gorputzen ondoezak" gaiaren gainean aritu zen.
- Sabine Michels fisioterapeutak "Tonua, pertsonaren eraikuntzaren azpiko erakuslea" gaiari heldu zion.
- Myrtha Hebe Chockler psikomotrizistak "Mugimendua sorburua eta subjektibotasuna eraikitzean duen garrantzia" gaia garatuko du.
- Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakasleak.



Guraso Elkartearen hezkuntza-jarduera onak



Azaroaren 5ean, Donostiako Miramar Jauregian, Guraso Elkartearen hezkuntza-jarduera onen jardunaldia egin zen. Juan Amodia Kantabriako unibertsitateko irakasle, guraso eta psikologoak hitzaldia eskaini ondoren, sarituen esperientzien aurkezpena egin zen.

Sarituak hauexek izan ziren: Batera guraso elkarte (Kurtzeberri BHI, Aretxabaleta), Juan Delmás guraso elkarte (Juan Delmás, LHI, Bilbo) eta Kuttun zeba guraso elkarte (Olaberria LHI, Olaberria). Informazioa:

<http://www.ehige.org/praktikaonak/>



EISNTEIN vs. BOHR

MUNDUA ULERTZEKO BI MODU

Albert Einsteinek ez zituen onartu mekanika kuantikoaren ondorio batzuk, baina oraindik ez da frogatu ondorio horiek faltsuak direnik. Niels Bohr-ek, aldiz, defendatu egin zituen, eta eztabaida luzeak izan zituzten. Bi genioen arteko eztabaidak ulertzeko liburu egokia da hau.



Z izpiak

**QUANTUM
EINSTEIN,
BOHR**
eta
errealitatearen
izaeraren
inguruko
eztabaida
handia.

Egilea:
Manjit Kumar



ELHUYAR
edizioak

WWW.ELHUYAR.ORG/EDIZIOAK





Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> Hamaika buruhauste izaten ditugu eguneroko jardunean. Haien artean, geroz eta ozenago eta bazter gehiagotatik, kezka nagusi bat zabaltzen ari da lau haizetara. Gure arreta bereganatu du kezkak eta hausnarketa laguntze aldera jarri nahi izan dugu hemen gure alea. Galdera bota dugu eta hona gure irakurleek zer esan diguten: *Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak?*

>Eskola gizartean integratzea

Eskolak aparteko mundua balitz bezala funtzionatzen du, askotan. Niri, haurra gizarterako prestatzen ari den pertsona bezala hartu behar dela iruditzen zait. Horregatik, gizartearekin batera jokatu behar da, eskolan egiten dena herrirako eta etxerako baliagarri izan eta kalean egiten dena eskolara eramanez, Haurraren eskubidea da inguruko errealitate sozialaz jabetzea eta etxearan eta eskolaren egiteko bat da errealitate hori ezagutzen laguntzea, hobetzeko aukera egon dadin. *Mikel P.*

>Komunikazioa eta komunikazio eza

Komunikazioak kezkutzen nau. Hobeto esanda, komunikazioa edo inkomunikazioa ematen den modua. Normalean, harreman mota horretatik sortzen dira arazo gehienak. Badago haurra pertsona bezala ez errespetatzea, berari agintzea, gai izango balitz bezala, ezgauza gisa tratatzea. Bada beste maila bat, sutilagoa, nahita edo nahi gabe, komunikatzerakoan, doinuak, hitzak, keinuak... min handia eman dezakete, eta, gero gainera, asko kostatzen da hori "desikastea"! *Elzaburu.*

>Ilusio edo amets falta

Hezkuntzan lanean dabilenak ilusioa behar du, bizitza era positiboan ikusi, amestu egin behar du. Bestela, edozein arazoren aurrean nola jokatu? Ez, ezin da inozo izan, dena positibo dela pentsatu, arazo eta zailtasunak ezikusiarrena egin... Alderantziz baizik, bizitzan traba ugari agertzen dira eta horiek baliatu behar dira egoerak aztertzeko, nola gainditu pentsatzeko, besteekin partekatzeko eta konponbidea bilatu. Ba al da hori baino gauza ederragorik? Horregatik uste dut hezitzaileak ilusioa behar duela, gizarte hobetzea amestu behar duela... Bestela, nola transmititu hori guztia sentitu gabe? Eta, horrela ikusi ezin dutenek? Ez dago ba makina bat lan heziketatik at! *Marijuana.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Zein da hezkuntzari buruzko zure kezka nagusia?

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa HIK HASIRI buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu HIK HASIREN BERRI!

argitalpenak



Dordokak lo egin nahi du

R. Aliaga/Alessandra Cimatoribus
TXALAPARTA

Logale handia du dordokak, eta negu guztia lotan emateko prest dago. Baina ohean sartu denean, lagunak datorzkio etxera bakoitza opari batekin, loaldi luzean denetarik beharko dela eta. Adiskidetasuna garrantzitsua da, eta dordokak eskerrak eman dizkie. Opari guztiak baino nahiago du, ordea, bakean utz dezatela lasai ederrean lo egiten... Txikienentzat •



Hiru egun balearen sabelean

Patxi Zubizarreta/ Jokin MItxelena
PAMIELA

Ba al dakizu, lehen, baleak euskal kostalderraino iristen zirela; gaurko estropaden jatorria orduko arrantzaleen harrapaketa dela; baleak urrutiratu eta baleazaleak Kanadara joaten zirela; baleontzi bakoitzean Txo esaten zioten mutik gazte bat joaten zela? Behar bada badakizu, baina ezetz jakin zer gertatu zitzaion San Roke itsasontziko txoari Ternuara zihoala? •



Scott Barberenaren bizitzako lehen pausoak

Pako Aristi/Jose Luis Zumeta
ELKAR

Scott Barberena bakarrik dago bere gelan; ahulak ditu hankak, eta ezin du handik mugitu; gainera, aita etxetik betiko joan dela uste du. Bere gelako gauzekin hasiko da orduan tratuan (erloju batekin aurrena, eta ondoren beste hainbat izadirekin) denen artean plan bat egingo dute, itsasoratu eta Scott aitaren bila joateko, Pernambucora. •



Erdi Aroan zehar bidaiatzen

Leire Jainaga
GAIK

Erdi Aroa ez zen aro "ilun" bat izan; aitzitik, garrantzi handiko aldia izan zen. Horixe erakusteko, ibilaldiatsegina egiten du liburu honek mende horien barrena: gertaera nagusiak, lanbideak, zaldunak eta torneoak, berrikuntzak, merkatuak eta elikatze moduak, elezaharrak eta mirariak, erromes baten bizitza... •



Azken garaipena

Iban Zaldúa/Julen Ribas
IKASTOLEN ELKARTEA

Sigrid Frisch tenienteak komikiak maite ditu. Polizia-etxeko bulegoan irakurtzen ditu, ezer egitekorik ez dagoenean. Bigarren Mundu Gerra Alemaniak nola irabazi zuen kontatzen duen komiki klasikoa irakurtzen ari dela jaso du abisua: haur batzuek hildako bat topatu dute ubidean. Fikzioa eta intriga istorio berean. •



egiteko prest!

Gurasoentzako aldizkaria
LEA-ARTIBAI
AMANKOMUNAZGOA

Kalean da jada urtekari honen aurtengo zenbakia. Bertan, barriak; 0tik 5 urtera, 6tik 11 urtera; Zeure Txokoa; 12tik 18 urtera; eta Denentzat, Familia atalak aurkituko dituzu. Artikuluez gain, baita kontsultak, zalantzak, kezkek eta abar azaltzeko txokoa ere. •

... nora joango gara?

San Telmo Museoa

Gaurko eta lehengo euskal gizartea ezagutzeko museoa

Donostiako San Telmo museoak euskal gizartearen eta herritarren museo izan nahi du, eta gure gizartearen ezaugarriak, aldaketak eta balioak erakusten ditu, pieza etnografiko eta artistiko garrantzitsuen bidez. Eskolen bisitetarako, material didaktiko ugari dute prestatuta.

Euskal Herriko museorik zaharrena da San Telmo museoa: XVI. mendeko monasterio domingotar ederrean dago kokatuta, 1902an inauguratu zutene-tik. Alabaina, gaur-gaurko museoa da Donostiako hau, moderno, guztiz era-berritu baitute aurten bertan. Euskal gi-zartearen eta herritarren museo da San Telmo, eta hauxe du oinarri: *iragan kultural eta historikoa da egungo gizartearen hazia; hain zuzen ere, didiplina askotariko ikuspegian oi-narriritua eta egungo elkarrizketara eta eztabaidara irekia*. Iragan kultural eta historiko hori balio handiko piezen bidez ezagut dezake bisitariak, Euskal Herriko museo etnografiko garrantzit-suena baita San Telmo.

Euskal gizartearen eta herritarren ondarea ezagutzeko 26.000 pieza ditu museoak inbentarioan, pieza etnogra-fikoak eta artistikoak gehienak; baina argazkilaritza-, arkeologia- eta historia-alorretako piezak ere ugari dira. Harri-bitxiak dira horietako asko, elizan ikus daitezkeen margolan historikoak nahiz



baserrietan jasotako argazki esangurat-suak.

Eraikinetik bertatik hasten da San Telmoren balioa: XVI. mendeko mo-nasterio domingotarra da sortzez, arki-tektura isabeldarraren barnean kokatzen dena, eta klaustro ederra du; baina, 1813an, frantziarren aurkako Indepen-dentzia Gerran Donostia setiatu zute-nean eta abuztuaren 31ko sutean hiria suntsitu zenean, domingotarrek ezin izan zioten aurre egin komentua berre-raikitzekeo gastuari, eta, 1836ko Mendi-zabalen desamortizazioaren ondorioz, domingotarrek komentua utzi egin be-har izan zuten, artilleriako kuartel bihurtu nahi baitzuten. Horrekin bate-ra, eraikinaren endekatzea azkartzen

hasi zen, eta, endekatze hori geldiaraz-teko helburuarekin, Udalak erosi zuen, 1921ean. Handik bederatzita urtera, mu-seo gisa ireki zituen ateak, nahiz eta 1900. urtetik museo izaera izan eta era-kusketak arrakasta handia hartu. Gaur egun, domingotarren monasteriotik haratago zabaldu da museoa, eta Ur-gull mendiarekin bat egin du; lau urte-ko berrikuntza-lanak amaitu ostean, espazio handi eta zabalago batean, eki-pamendu moderno bidez erosota-sun handiagoko eta zerbitzu gehiago es-kaintzeko aukera ematen du museoak.

Eraikinaren historia bera ikusgai dago museoan, hain zuzen ere, elizak toki horren historia eta bilakaera azalt-zen baititu, “Komentutik museora”

erakusketan. Ondoren, komentu zahar-
rean eta pabilioi berrian, euskal gizar-
teari eta herritarrei buruzko bilduma
iraunkorreko erakusketez eta aldi bate-
ko erakusketez gain, eskola-umeekin
garatu ahal izateko proiektu pedagogi-
ko sendo bat eskaintzen du San Telmo
museoak.

Elizan, "Gure gizartearen erron-
kak" izeneko erakusketa dago. Erakus-
keta horretan, egungo gizarteak gain-
ditu beharreko erronkak azaltzen dira,
ikus-entzunezkoen eta egungo tekno-
logien bidez. Halaber, mahai interakti-
bo baten bidez, eztabaida eta hausnar-
keta eragin nahi dira gaur egungo gaiei
buruz: bakeaz eta giza eskubideez, ga-
rapen iraunkorraz, kulturartekotasu-
naz, berdintasunaz edota Europak
munduan duen eginkizunaz.

Gauregunera edota, areago, etorki-
zunera begira dago San Telmo museo-
a, baina, horretarako, badaki beharrez-
koa dela iragana ezagutzea; horregatik,
"Oroimeneko arrastoak" izeneko era-
kusketak leku berezia du museoan.
Historiaurretik XVIII. mendera, Euskal
Herriaren eraketan eta garapenean ga-
ko izan diren eta berorren bilakaeran
arrastoa utzi duten une eta gertakariei
buruzko hausnarketa eskaintzen da
erakusketan, eta ohiturak, pertsonaiak,
mitoak, gertakariak, jazoerak... ematen
dira aditzera. Hortik, "Modernitate-
aren hasiera"ra igaroko da bisitaria,
non XIX. eta XX. mendeetan euskal gi-
zartean gertatutako aldaketa nagusien
berri emango zaion: landa-eremukobi-
zimodutik bizimodu industrializatura
aldatzea, hain zuzen ere.

Erakusketa iraunkorretan azkena
"Artearen bilduma historikoa" da. XV.
mendetik XIX. mendera bitarteko ibil-
bide kronologiko baten bidez, artearen
historian funtsezkoak diren artisten lan-
nak bertatik bertara ezagut daitezke,
hala nola Greco, Tintoretto, Ribera, Ru-
bens, Beruete, Fortuny edo Mirórenak.

Museoak, halaber, lehen eta biga-
rren hezkuntzako ikasleentzako proiektu
pedagogiko sendoa dauka, eta mu-
seoan nahiz hirian bertan lantzeko fitxa
didaktikoak ditu, batzuk ikastetxean
bertan museora etorri aurretik lantze-
ko, eta beste batzuk museoan nahiz hi-
rian bertan lantzeko.

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza 1

20003 Donostia

Telefono zenbakia: (00 34) 943 48 15 80

santelmo@donostia.org

www.santelmomuseoa.com



ESKAINTZAK

Kalejira 1

Hirian zehar egiteko ibilbidea da, eta, Donostiako Parte Zaharreko eraikin en-
blematicoak bisitatuz (San Telmo museo, Bretxa, udaletxea, Konstituzio plaza,
Santa Korda, Kanoietza, San Bizente...), historia eta oroitzapen kolektiboak lantzea
du xede. Lehen Hezkuntzako haurrekin lantzeko prestatuta dago, eta, nahi izanez
gero, gelan ere landu daiteke atal bat; ondoren, ikasleek binaka landuko dute bes-
te atal bat museoan. Lan-koadernoak, irakaslearen gida, ipuina, planoak eta ebalua-
zioa webgunetik deskarga daitezke.

Kalejira 2

Aurreko ariketa bezala, hau ere Lehen Hezkuntzako haurrentzat, eta lan-dina-
mika berdina da: eskolan eta, ondoren, museoan landu daiteke. Ibilbide honek
Donostiako zabalgunean hamar kokaleku erakusten ditu: Victoria Eugenia antzo-
kia, Maria Cristina hotela, Kursaalera zubia; Santa Katalina zubia; Maria Kristina zu-
bia; Artzain Onaren katedrala, Koldo Mitxelena Kulturunea, udaletxea eta Alderdi
Eder, Foru Aldundiaren jauregia eta Gipuzkoa plaza. Leku bakoitzean, geldiune
bat egingo da, dagokion jardura egiteko eta orri didaktikoetako galderei erantzut-
teko.

Donostiari begira

San Telmo museoan ez, baizik eta Urgullen, Motako gazteluan dago Historia-
ren Etxea, eta etxe horretako erakusketaren eta mendiaren inguruan hainbat jar-
duera proposatzen dizkie San Telmo adin ugaritako ikasleei. LHko lehen zikloko
ikasleei pertsonaia historikoen mozorro-lantegia proposatzen zaie, esate batera-
ko, eta bigarren zikloko ikasleei, berriz, trama-lantegia. Diorama lantegia, Errege
Konpainia Gipuzkoarraren jokoa, CSI historikoa eta abar ere egin daitezke Uргу-
lleko museoan; eta mendian, aldiz, ginkana edo pista-jokoak egin daitezke.

Maleta didaktikoak

Donostiako museoak bi maleta didaktiko ditu, ikasteko prestatutako jolasekin.
Batetik, hilarrietan zehar bidaia bat proposatzen du maleta batek; eta besteak, ber-
riz, hiri historikoetan bizitzeak dakarren esperientzia azaldu nahi du. Hilarrien az-
terketan oinarritzen den maleta didaktikoa hezkuntza-sisteman sartuta dagoen kole-
ktiboentzat da. Bi bideo, hiru puzzle, kromo-joko bat, bi domino-joko, mapak,
esplorazio-kita, hilarri bat, poesia-liburu bat eta irakaslearen gida ditu maletak. Al-
diz, hiri historikoetan bizitzeko maletak Ávila, Cáceres, Kordoba, Salamanca, San-
tiago, Segovia eta Toledori lotutako ariketak ditu, lehen hezkuntzako ikasleentzat.



atzeko atetik



Ainara GURRUTXAGA

AKTOREA

Gurasoen etxean, txikitan nire gela izan zen horretara joan nintzen zerbait hartzera. Atea ezin zen ia zabaldu ordea. Nolabait bultza eta argia piztean zur eta lur gelditu nintzen. Dena hankaz gora zegoen, edo hobe esanda gainezka. Ohea ere ez zen ikusten! Liburuak, kaseteak, karpetak, paperak alde guztietatik. Armairurako bidea objektu pila horren artetik egin beharko nuen. “Ez neukan dena jartzeko beste lekurik dena ordenatu arte. Espero dut behar duzuna topatuko duzula anabasa horretan!” - bota zidan amak sukaldetik nire estuasuna igarriz.

“Lasai, moldatzen naiz!” oihu egin eta hankarekin, nahi gabe, kasete dorre bat jo nuen. Denak lurrera plaust. Eta han azaldu ziren bapatean nire txikitako oroitzapen goxoenak: Xixupika, Ez utzi haurrei negaregiten, Erreka Mari... Ezin izan nion irribarreari eutsi. Aurki-

Txingurrien ametsak

kuntza hari denbora eman behar niola erabakita, lurrean eseri nintzen. Freinet, Montessori, Piaget, Freire, Rosa Sensat... Ireki nuen Freineten liburu bat: “No podéis preparar a vuestros alumnos para que construyan mañana el mundo de sus sueños, si vosotros ya no creéis en esos sueños; no podéis prepararlos para la vida, si no creéis en ella; no podréis mostrar el camino, si os habéis sentado, cansados y desalentados en la encrucijada del camino”.

Nire amak duela gutxi hartu du erre-tiroa. 40 urtez izan da andereño ikastolan. Urte guzti horietan pilatutakoak ekarri zituen etxera. Eta ni, momentu horretan konturatu nintzen benetan zeresan nahi zuen horrek. Memoria-altxor hura aurrez-aurre topatu nuenean.

Pasioz bizitu du bere lanbidea urte horietan guztietan. Hezkuntza gizartea aldatzeko gai dela konbentzita egon da beti. Eta hezkuntza sistemaren inguruan ezadostasunak sortzen hasi zitzaizkionean ere, ikastola eredu berak nahi zuen horretatik hurruntzen ari zela bazekien arren, beti saiatu da bere ahalmenen barnean ahalik eta eskola biziena, libreena, sortzen.

Ingurura begiratu nuen berriro: Ametsen mendilerro bat iruditu zitzaidan hura. Txingurri batek sortutako

bizitzako-esperientzien mendilerro erraldoia. Amets eta utopia txikiez sortutako paisaia eder-ederra.

Eta pentsatu nuen nola gure belau-naldia, konplexuz beteta egon den urtetan. Pentsatuz ez zegoela ezer egite-rik gauzak aldatzeko, sistema zurrungia zela eta ezdeusegiak ginela ezer mugitzeko. Eta zenbat gauza zoragarri egin daitezkeen txikitasunetik! Begi aurrean nuen froga.

Ama etorri zen gelara. “Hau dena altxor bat da ama!” esan nion mendilerroa seinatuz.

“Horiek trasto zaharrak dira! Hautsa eta porkeria besterik ez dute biltzen!” esan zidan. Onartu behar dut nire amaren eta nire erromantizismoa ulertzeko moduak pittin bat ezberdinak izan direla beti. Baina arrazoi zuen. Haiek trasto zaharrak ziren beretzat, bera orain bizi delako eta etorkizun osoa duelako orain bere aurrean.

“Nik eretxingurri izan nahiko nuke, ametsezko mendilerroak osatzeko” bota nuen, ia nire bururako.

Buruarekin “neska honek ez du erremediorik” keinuak egin zuen amak erdi barrezka. Gelatik irten eta nire txikitako gelako atea itxi nuen. “Bazkalduko dugu?” esan zidan berak. Nik muxu bat eman nion.




Haurrek erraztasun handia dute bigarren hizkuntza ikasteko, baina handitu ahal ahalmen hori txikitzen joaten da. Aldiz, Washingtingo unibertsitateko (AEB) ikerlari talde baten arabera, giro elebidun batean hazitako haurrei gehiago irauten die hizkuntza berriak ikasteko ahalmenak.

ttiki.com/31763

centroderecursos@alboan.org

ELKARTASUNEAN HEZTEKO BALIABIDEAK ESKURA, KLIK BATEAN



Unitate didaktikoak
jolas kooperatiboak
musika pelikulak...

<http://centroderecursos.alboan.org>



Material guztiak hemen har ditzakezu

Bilbao
Aita Lojendio, 2
Tel. 944 059 567

Iruña
Avda. Barañain, 2
Tel. 948 231 302

Laguntzaileak:



Plaza de Perros
Alrededor
de la Plaza

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Sirenen Kantua
Ane Pirata abenturazalearen
ipuin berria



8€



15€

Zazpikoloroa CDa
20 ipuintxo eta 20 abestirekin,
etxeko sudurgorri guztientzat!



17€

Ongi Etorri
Pupu eta Lore DVDa
ikusizuna zuzenean, erreportajeak,
klipak, karaokeak, partiturak...

KOLOREZ BETETA GATOZI!!!



16€

Bonberenea
CDa +DVDa
pailazoak Bonberenea
txarangarekin elkarlanean



7€

Nor gara?
kartoizko ipuinak
etxeko txikiarentzat

Pupu eta Lore
peluxezko
panpinak



20€ + 20€

eskaerak

www.katxiporreta.com

Katxiporreta
KOOP.E.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404